



EBAZPENA,

LANBIDE HEZIKETAKO ETA

ETENGABEKO IKASKUNTZAKO

SAILBURUORDEARENA,

HELDUEN HEZKUNTZAKO IKASTETXE

PUBLIKOETAKO 2011/2012 IKASTURTE-

HASIERARI BURUZKOA.



AURKIBIDEA

- 1.- HELDUEN HEZKUNTZAKO IKASTETXEAK
- 2.- IKASTETXEAREN JARDUERARAKO PLANGINTZA ETA ANTOLAMENDUA OSATZEKO TRESNAK
 - 2.1.- Ikastetxearen hezkuntza-proiektua eta ikasketa-proiektua
 - 2.2.- Antolamenduaren eta jardueraren araudia
 - 2.3.- Ikastetxearen hizkuntza-proiektua
 - 2.4.- Kudeaketa- proiektua
 - 2.5.- Ikastetxearen urteko memoria
 - 2.6.- Ikastetxearen urteko plana
 - 2.7.- Elkarbizitzaren behatokia eta elkarbizitza-plana
- 3.- IKASKETEN ETA CURRICULUMAREN ANTOLAMENDUA
 - 3.1.- Ikasketen antolamendua
 - 3.2.- Curriculumaren antolamendua
 - 3.3.- HLPP ematen duten ikastetxeekin koordinatzea
 - 3.4.- Urrutiko hezkuntzarentzako laguntza
 - 3.5.- Etorkinentzako hezkuntza-tratamendua
- 4.- HELDUENTZAKO ASTEKO ORDUTEGIA
- 5.- AUKERAKOTASUN-ESPASIOAREN ESKAINTZA ETA ANTOLAMENDUA
- 6.- ARAUTU GABEKO PRESTAKUNTZA-PROGRAMEN ESKAINTZA
- 7.- EGUTEGIA
- 8.- MATRIKULAZIOA
- 9.- IRAKASLEEN IZENDAPENA
- 10- URTEKO JARDUNALDIA
- 11.- IRAKASLEEN ASTEKO JARDUNALDIA
 - 11.1.- Irakastorduak
 - 11.2.- Gaixotasun kronikoa duten familiartekoei arreta emateko baimena duten irakasleak
 - 11.3.- Zuzendaritza-taldea
 - 11.4.- Eskola-orduen heren bateko murrizketa duten irakasleak
 - 11.5.- Irakaskuntzaz kanpoko jardueren ardura
 - 11.6.- Ikastetxearen ordutegia agerian jartzea



12.- IRAKASLEEN ASISTENTZIA

- 12.1.- Jardunaldia betetzeko kontrola
- 12.2.- Asistentzia-agiriak

13.- DEPARTAMENTUAK

- 13.1.- Orientazio Departamentua

14.- TUTORETZAK

15.- IKASLEEN EBALUAZIOA

- 15.1.- Hasierako ebaluazioa
- 15.2.- Etengabeko ebaluazioa
- 15.3.- Amaierako ebaluazioa

16.- IKAS-ERRENDIMENDUARI BURUZKO BALORAZIO OBJETIBOAREN ESKUBIDEA

17.- DOKUMENTAZIOA

- 17.1.- Matrikula-orria
- 17.2.- Ikaslearen espedientea
- 17.3.- Ebaluazio-agiriak

18.- EGIAZTAGIRIAK ETA TITULUAK

19.- IRAKASLEEN PRESTAKUNTZA

20.- TEKNOLOGIA BERRIAK-IKT

21.- IKASTETXEETAKO OSASUN ETA SEGURTASUNARI BURUZKO ARAUTEGIA

- 21.1. Osasun-larrialdiak ikastetxeetan
- 21.2. Osasun-arreta eskola-orduetan
- 21.3. Ibilgailuak ikastetxera sartzeko modua
- 21.4. Obrak
- 21.5. Segurtasun laguntzailea
- 21.6. Irakasleriaren prestakuntza prebentzio arloan
- 21.7. Larrialdietako simulazioak
- 21.8. Tabako eta alkohol-dun edariak
- 21.9. Botikin eramangarria
- 21.10. Lan-arriskuen prebentzioari buruzko informazioa



EBAZPENA, LANBIDE HEZIKETAKO ETA ETENGABEKO IKASKUNTZAKO SAILBURUORDEARENA, HELDUEN HEZKUNTZAKO IKASTETXE PUBLIKOETAKO 2011/2012 IKASTURTE-HASIERARI BURUZKOA.

2008ko urriaren 31ko Aginduaren bitartez orokorrean Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxe guztietan 2008-09 ikasturtean ezarri zen Helduen Oinarrizko Hezkuntzako berriazko curriculum.

Ebazpen honen bidez, HHE eta UOHiko ikastetxeen antolamendua eta funtzionamendua bideratzeko arauak zehaztu eta finkatu nahi dira, ikastetxe horiek Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Graduatu titulua lortzeko aukera ematen duen oinarrizko hezkuntza eskaintzeko.

Honek duen interesa kontuan hartuta, ikastetxeetako zuzendaritzek ikasturte-hasieran egin behar den OOGren eta klaustroaren lehen bileran ebazpen hau jakinaraziko dute, eta dagokien Aktetan jasota geratu beharko dute.

1.- HELDUEN HEZKUNTZAKO IKASTETXEAK

HHEko ikastetxeak eskualderako edo udalerrirako antolatuko dira, beren geografi erreferentzia eta eragin-gunea eskualdea (herri edo udalerrri batzuk) edo udalerrria den kontuan hartuta.

Oinarrizko ikastetxearen unitate diren beren eraginpeko taldeak eta gelak sartzen dira horrelako ikastetxeetan. Horregatik, bada, ikastetxe bakoitzaren talde-kopuruak zein gehitu zein urritu egin ahal izango dira, hain zuzen, HHEko ikastetxe bakoitzak duen eskaera, eskaini dezakeen arreta eta berak duen hezkuntza-proiektuaren prestakuntza-irizpideak kontuan hartzen direlako.

Horrenbestez, unibertsitatekoak ez diren gainerako ikastetxeak bezalaxe, hauek ere administrazio-unitateak dira eta, horregatik, trataera berdina jasotzen dute langileak esleitu eta lanpostuen zerrendak egiterakoan eta dotazioei, Ordezkaritza Organo Gorenari eta zuzendaritza-taldeari dagokienean.

Bestalde, Euskal Eskola Publikoari buruzko Legean azaltzen diren kide bakarreko eta anitzeko organoek agindu eta bideratuko dituzte ikastetxeok, beti ere, lege horrek eskuordetzen dizkien eginkizunak betez.



2.- IKASTETXEAREN JARDUERARAKO PLANGINTZA ETA ANTOLAMENDUA OSATZEKO TRESNAK

Euskal Eskola Publikoari buruzko Legeak dioenez, ikastetxeen jarduera antolatzeko tresnak prestatu, onartu eta betearaztean gauzatzen da ikastetxeen autonomia.

Ikastetxeen antolamendu eta jarduerarako, honako tresna nagusi hauek daude:

- a) Ikastetxearen hezkuntza-proiektua eta ikasketa-proiektua
- b) Antolamenduaren eta jardueraren araudia
- c) Ikastetxearen hizkuntza-proiektua
- d) kudeaketa-proiektua
- e) Ikastetxearen urteko memoria
- f) Ikastetxearen urteko plana

2.1.- Ikastetxearen hezkuntza-proiektua eta ikasketa-proiektua.

Erabat loturik daude proiektu biok eta **ikastetxearen pedagogi autonomiaren** adierazgarri dira: bata, hezkuntza-komunitateko sektoreek bere gain harturiko hezkuntza-aukeraren aldeko erabakia delako (hezkuntza-proiektua) eta bestea, irakaskuntzan duen eragina adierazten duelako (ikasketa-proiektua).

Euskal Autonomia Erkidegoko helduen oinarrizko prestakuntzako irakaskuntzak izaera orokorraz ezarrita egonik, ikastetxe guztiek antolamendu-tresna bi horiek izan behar dituzte, nahiz eta beti hobetu daitezkeenak izan eta aldian-aldian berraztertu beharra egon. Horretarako, ikastetxe bakoitzak aurreko ikasturteetan hasitako prestakuntzari jarraipena eman behar dio, hau da, **taldean gaiak hausnartu, aztertu eta erabakiak hartzeko prozesu bat** jarraitu behar du, pausoz pauso proiektu horiek gauzatu daitezen eta curriculumaren arlo bakoitzean moduluko irakaskuntza praktikan jar dadin.

Hezkuntza eta ikasketa-proiektuen lanketa Curriculum berria ezartzen duen 2008ko urriaren 31ko Aginduaren 18. eta 20. artikuluetan xedatutakoari lotuko zaio.

Euskal Eskola Publikoari buruzko Legearen 48.2 artikulua dioenaren arabera, irakasle-talde guztiak eta irakasleak eurak ikastetxearen hezkuntza-proiektuari (IHP) eta ikasketa-proiektuari (IIP) loturik egongo dira. Horiei men egitearen barruan, eskolako jarduerak lantzeko eta programatzeko nahiz bakoitzak bere arloko jarduera-egitarauak aurrera eramateko egoki iritzitako erabakiak hartu ahal izango dituzte. Irakasle bakoitzaren erabaki horiek, dena den, beti egon behar dute IHPk eta IIPk ezarritakoaren mende, eta beraz, jarduerak prestatu eta programatzeko bakoitzaren eskumen horretan ere men egin beharko zaie OOGk (IHP) eta irakasleen klaustroek (IIP) behar bezala onetsitako kudeaketa-sistema edo bestelako antolamendu-neurriei.



Garrantzi bereziko da Elkarbizitza Plana, ikastetxe guztiek beren Hezkuntza-Proiektuaren barruan onartu behar dutena. Euskal Hezkuntza-Sistemak elkarbizitzarako eta hiritartasun demokratikorako, aktiborako zein erresponsablerako hezkuntza sustatzen du. Hezkuntza hau justizia, tolerantzia, errespetua, solidaritatea... bezalako balioetan oinarrituta dago. Ikasleengan gatazkak eta arazoak ebazteko kompetentziak garatzen duen hezkuntza da. Hezkuntza honek garatuko ditu ikasleengan behar dituzten kompetentziak ondorengo helburuetarako: erantzukizunez beraien bizitzaren kudeaketa onartzeko, norberarekin zein besteekin harreman positiboak eratuzeko, erabakiak hartzeko eta zentzu kritikoarekin jokatzeko.

Halaber, Hezkuntza-proiektuak Tutoretza-plana edukiko du. Plan horrek tutoretza ekintzaren helburua jasoko du, baita orientazio eta jarraipeneko ekintzak ere, eta eskolaldi osorako ikasle guztientzat izango dira. Ekintzen helburua da ikasleak oinarrizko gaitasunak izatea, eta, horrela, norberaren proiektu pertsonal eta akademikoaren protagonista izatea. Plana tutore-taldeak egingo du orientatzaileekin batera; garatu egingo du, eta, ikasle guztiei erantzuteko zer hobetu behar den proposatuko du.

Ikastetxe bakoitzak ahal beste zehaztu eta garatuko ditu ikastetxearen hezkuntza eta ikasketa-proiektuak burutzeko erabakiak. Eskatzen dena da erabaki horiek idatzita azaltzea, ikasturtean zehar lortu duten zehaztapen-mailarekin. Gogoeta-prozesuaren lehen emaitzatzat eta gero eman beharreko urratsen oinarritzat hartuko dira erabakiok.

Ikastetxeek hezikidetzak integratuko dute hezkuntza-kudeaketako txostenetan ikasmaterial sexistak baztertue, eta hezikidetzak irizpideak lantzen dituzten ikasmaterialak sartuko dituzte.

Era berean, komenigarria da hezkuntza-komunitateko kide guztiei otsailaren 18ko 4/2005 Legearen III. kapituluko 1. sekzioak (Unibertsitate-irakaskuntzak) dioenaren berri ematea, eta batez ere 28, 29, 30, 31.1 eta 31.3 . artikuluetan jasotakoak, (4/2005 Legea, gizonen eta emakumeen arteko berdintasunerako Legea).

2.2.- Antolamenduaren eta jardueraren araudia

EEP Legeak jasotzen duen **antolamendu-autonomiari** buruzko oinarrizko alderdiak garatu dira azken ikasturteetan zehar, eta ikastetxe bakoitzaren antolamenduaren eta jardueraren araudian (AJA) zehaztu dira.

AJA araudien prestakuntza pausoz pauso egiten den lana da eta bata bestearen ondoren zehaztapenak eta eguneratzeak behar ditu. Ikastetxe bakoitzak, hortaz, berak dituen beharren eta lehentasunen arabera erabaki beharko du zein alde aldatu behar diren, zein zehaztu edo zein garatu 2011/2012 ikasturtean zehar, betiere Hezkuntza Sailak horri buruz ezartzen dituen orientabideak eta arauak kontuan hartuz. Horri dagokionez, ikastetxeek Hezkuntzako Ikuskaritza-zerbitzuari AJA ereduak eska diezaiokete, ikastetxearena egiteko lagungarria izan baitaiteke.

Nolanahi ere, ikastetxeek honako hauek hartu beharko dituzte kontuan:



- Ordezkaritza Organo Gorenaren (OOG) osaera Euskal Eskola Publikoari buruzko Legearen 32. atalean xedatutakoari lotu beharko zaio, bai eta partaidetzarako gutxienezko ehunekoak aipatzen dituen eta araudi hori HHEren berezitasunetara egokitzen duen uztailaren 6ko 201/1993 Dekretuari ere (2 eta 3. atalak eta I. eranskina). Zuzendariak, ikasketa-buruak eta idazkariak osatzen dute ofizialki zuzendaritza-taldea; behar den ikastetxeetan administrazioak izendatuko ditu. Beste kargu guztiak (gradu koordinatzailea, zirkulu edo gelako arduraduna, eta abar) zuzendariaren eskumenekoak dira eta horien izendapena ikastetxe barruan egingo da. Urtero jasoko da klaustroko aktetan. Idazkariak egiaztatuko du merezimenduen baremazioa, zuzendariak ontzat emanda. Ikastetxe bakoitzeko AJAn (ikastetxe pribatuen kasuan Barne Araudian) arautuko dira karguen kopurua, kargudunak izendatzeko modua eta dagozkien egitekoak, beti ere Euskal Eskola Publikoari buruzko Legean agindutakoarekin bat etorritik.

Klaustroak eta Eskola Kontseiluak onartu ondoren Hezkuntza-Proiektua Hezkuntzako Ikuskaritza-zerbitzuaren eskueran egongo da, honek bere txostena egin dezan.

2.3.- Ikastetxearen hizkuntza-proiektua

Hizkuntzen irakaskuntzarekin eta erabilpenarekin lotutako alderdi guztien plangintza egingo duen agiria da hizkuntza-proiektua, ikastetxeek egindakoa, beren hezkuntza-esparruan aplikatzeko. Hezkuntza-proiektuan jasotako ikaskuntza-prozesuan hizkuntzak nola irakatsiko eta erabiliko diren finkatuko du hizkuntza-proiektuak, eta zehaztu egingo zer-nolako trataera izango duten hizkuntzek curriculum-proiektuan. Agiri horretan jasotako erabakiek eragin zuzena izango dute ikastetxeko beste agiri batzuetan; esaterako, Antolakuntza eta Jarduera araudian, Urteko Planan, barne- eta kanpo-harremanak arautuko dituzten printzipioetan, eta abarretan. Izan ere, azken horien bidez gauzatuko dira hizkuntza-proiektuan adostutako printzipioak.

Helduen Hezkuntza ematen duten ikastetxeek, beren hezkuntza-proiektua aintzat hartuta, beren ezaugarrietara moldatu eta egokituko dute pertsona helduen Oinarritzko Hezkuntzaren berariazko curriculum-a ezartzen duen 2008ko urriaren 31ko Aginduak egindako curriculum-planteamendua; halaber, aintzat hartuko dute hizkuntzak komunikazio-hizkuntza gisa erabiltzea dela bide egokiena elebitasunaren helburua lortzeko eta arlo eta irakasgai bakoitzeko curriculum-edukiak irakasteko.

2.4.- Kudeaketa-proiektua

Euskal Herriko ikastetxeetan kudeaketa ekonomiko-finantzarioko sistema autonomiko bat ezarri ondoren, ikastetxe bakoitzak bere kudeaketa-proiektua landuko du eta hau Ordezkaritza Organo Gorenak (OOG) onartu beharko du. Azken honek proiektua betearaziko du eta honen ebaluazioa egin, Euskal Eskola Publikoari buruzko Legearen 28.3 artikuluan xedatutakoa betez.

2.5.- Ikastetxearen urteko memoria

Memoria ekainaren azken astean eta irailaren lehenengo asteetan egingo da, eta zuzendaritza-taldeak koordinatuko du lan hori. Ikastetxeen urteko plana aztertuta eta zein



neurritaraino bete den ikusita, bai eta ikastetxean lortutako emaitzak kontuan izanda, ikastetxe bakoitzak bere autoebaluazioa egingo du, ondorioak ateratzeko eta proposamenak egiteko, hurrengo urteko irakaskuntza-jarduera hobetzarren. Orobat, lehentasunak ezarriko ditu, ikastetxearen hurrengo planean lortu beharreko helburuak izango direnak.

Urteko memoriak ikastetxearen autoebaluazioa islatzen duenez gero, Ordezkaritza Organo Gorenak (OOG) onetsi beharko du, eta kopia bat ikastetxeko idazkaritzan geratuko da, Hezkuntzaren Ikuskaritzak eta Lurralde Ordezkaritzako Helduen Hezkuntza Zerbitzuko Arduradunak erabil dezaten.

2.6.- Ikastetxearen urteko plana

Honako hauek osatzen dute ikastetxearen urteko plana:

1) Irakaskuntza-jardueren programa;

2) Gizarte eta kulturaren arloetako jardueren programa (Euskal Eskola Publikoari buruzko Legean prestakuntza-jarduerak, eskolaz kanpokoak eta osagarriak programerekin parekatzen da);

3) Urteko kudeaketa-programa

Zuzendaritza-taldea da ikastetxearen urteko plana prestatzeko lanak koordinatu behar dituen; horretarako, kasu bakoitzean, dagozkien batzorde edo organoen lankidetzan izan dezake.

Ikastetxearen Ordezkaritza Organo Gorenari dagokio plan hori onartzea, irakaskuntza-jardueren programari dagokionez Euskal Eskola Publikoaren Legeak eta Hezkuntzako Lege Organikoak Klaustroari esleitzen dizkieten eskumenei kalterik eragin gabe.

2.6.1.- Irakaskuntza-jardueren programa

Irakasleen klaustroak egingo du programa hori, zuzendaritza-taldeak koordinaturik.

Ikasturte barruko hezkuntza-jarduera martxan jartzeko erabakiak biltzen ditu irakaskuntza-jardueren programak. Memorian jasotako ondorioetatik eta lehentasunezko proposamenetatik abiatuz, ikastetxeak ezarriko du zein helburu eta jarduera nagusi garatu behar diren irakaskuntzan, ikastetxeak dituen baliabideak eta ikasleak kontuan hartuta. Hona hemen, besteak beste, azaldu beharreko zenbait puntu: tutoretzen banaketa, ikasleen eta irakasleen ordutegiak, ikasleak taldekatzeko irizpideak, orientazio eta tutore-lanerako plana, ebaluazio-egunak, irakaslegoari lanak banatzeko irizpideak, irakas eta ikastetxean egon beharreko ordutegiaren banaketa, irakaskuntza-prestakuntzari emateko laguntza berezien banaketa, proiektuen prestaketa, guztientzako tokien banaketa, irakaskuntza-baliabideen antolamendua, taldeko organoetako partaideak, kide bakarreko karguen arduradunak... (Arlo horietako asko Eskolako Jardueren Agiria (EJA) osatzen duten fitxetan ageri dira. Izan ere, Eskolako Jardueren Agiria irakaskuntza-jardueren programaren barruan dago).



Beharrezko deritzogu, horrenbestez, irakaskuntza-jardueren programan honako lau puntu nagusi hauek garatzea:

1. Ikastetxearen ezaugarriak: beharizanak, proiektuak, lehentasunak...
2. 2011/2012 ikasturtean zehar lortu beharreko helburuak (ikastetxe osorakoak edo zirkulu/gela baterakoak, gradu baterakoak, departamentu baterakoak...)
3. Helburuak lortzeko ekintzak eta ekintza horien plangintza
4. Ebaluazioa: irizpideak, garaiak, tresnak, eragileak...

2.6.2- Gizarte eta kulturaren arloetako jardueren programa

Irakasle-taldeari dagokio gizarte eta kulturaren arloetako jardueren programa prestatzea, **zuzendaritza-taldeak koordinaturik, ikasleek horren inguruan egiten dituzten proposamenak kontuan izanik; Ordezkaritza Organo Gorenari, berriz, programa hori onartzea dagokio.**

* Ikasleekin egiten diren gizarte eta kulturaren arloetako jarduerak diogunean, hauxe adierazi nahi dugu: programazioko jarduerak izan arren, aparteko izaera duten jardueratzat hartzen direla, bai egiten diren une edo tokiagatik, bai baliabideengatik, bai ikastetxeari dakarzkion ondorioengatik ere. Besteak beste, honako hauek:

- ikastetxe barruan nahiz kanpoan egiten diren kultura eta prestakuntzarako jarduerak eta abar;
- ikastetxe barruan egindako jai-jarduerak;
- hezkuntza-kanpaina bereziak;
- ikastetxetik kanpoko jarduerak: bisitaldiak, landa-lanak, irteerak...

Jardueron plangintza egiten denean zehaztuko dira jardueron helburuak, arduradunak, egiteko unea eta tokia eta ikasleek parte hartzeko modua. Jarduera horien diru-kontuak eta ondorioak kudeaketako urteko programan azaldu beharko dira.

* Ikastetxe bakoitzean egiten ari den Irakasleen prestakuntzarako programak ere ikastetxe horren gizarte eta kulturaren arloetako jardueren programan sartuko dira, ikasturtean zehar egiteko ekintzak (prestakuntza-proiektuak, ikastaroak, jardunaldiak...) direnez gero.

2.6.3.- Kudeaketako urteko programa

Gastuak dakartzaten jarduera guztiak jasoko dira programa horretan, gizarte eta kulturaren arloetako jarduerak barne. Horretarako, ordea, jarduera mota desberdinak, diru-iturriak, aurreikuspenak eta gastuetarako irizpideak, kudeaketaren arduraduna eta kontrol-sistemak bereizi beharko dira, besteak beste. Programa hori laburra eta argia izango da, ikastetxearentzat praktikoa izan dadin.



URTEKO PLANA eta MEMORIA laburrak eta zehatzak izango dira, ikastetxeak erraz erabiltzeko modukoa. Agiri horiek biak urriaren 30 baino lehen prestatu eta aprobatu behar dira, eta ikastetxeko idazkaritzan egongo dira, Hezkuntza Elkartearen eta dagokien Hezkuntza Administrazioako zerbitzuen eskueran.

OHARRA: Lurraldeko Ikuskaritzan, Berritzegunetan eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketaren web-orrian Urteko Plana eta Memoria egiteko eredu eguneratuak daude.

2.7.- Elkarbizitzaren behakia eta elkarbizitza plana

Hezkuntzaren oinarrizko helburuetako bat elkarrekin bizitzen ikastea da. Elkarbizitza positiboa sustatu eta hezkuntza-komunitate osoa horretan inplika dadin, kurtso honetan zehar ikastetxean Elkarbizitzaren Behakia sortzeko eta Urteko Elkarbizitza-plana sortzeko eskatzen diegu ikastetxeei. Bestetik, ikastetxearen sektore guztietako ordezkariak izan beharko dute behakoki horren kide.

3.- IKASKETEN ETA CURRICULUMAREN ANTOLAMENDUA

Beste ikastetxeen kasuan bezalaxe, HHEko ikastetxearen hezkuntza-proiektuak ere bertan ematen diren irakaskuntza guztiak hartu beharko ditu. 2008ko urriaren 31ko Aginduaren bidez autonomia erkidego honetan helduentzako ezarritako oinarrizko prestakuntzaren curriculumaren arabera Bigarren Hezkuntzako graduatua eskuratzeko bete behar dituzten helburu orokorrak izango dira, alde batetik, oinarrizko puntua eta, bestetik, ikastetxe bakoitzari arautu gabeko prestakuntza-programentzako baimendu zaizkion programak.

3.1.- Ikasketen antolamendua

Helduen oinarrizko prestakuntza hau hiru gradutan zatitutako etapa bakar batean egituratuko da:

I. gradua, edo Hasierako Ikasketak I: pertsona helduak gai izan behar du oinarrizko gaitasunak eskuratzeko matematiketan eta hizkuntza-komunikazioan, ahozko eta idatzizko ulermenean, adierazpenean eta harremanean, hortik abiatuta oinarrizko gaitasunak eskuratu ahal izateko.

II. gradua, edo Hasierako Ikasketak II: pertsona heldua maila guztietan garatu ahal izateko jakintza eta gaitasun orokorrak sendotzen dira.

III. gradua, edo Bigarren Hezkuntza, 1. mailan (1,2 moduluak) eta 2. mailan (3,4 moduluak) antolatuko da: pertsona helduen prestakuntza osatu, zabaldu eta sakondu nahi da, amaierako gaitasunak aski izan daitezen pertsona helduak diharduen eremu guztietan parte handiagoa izateko; maila hau gaindituta, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren Graduatu lortzen da.

Arautu gabeko prestakuntza-programei dagokienez, ikastetxe bakoitzari baimendutakoari jarraituko zaio, aurkeztutako proiektuaren arabera.



3.2.- Curriculumaren antolamendua

Curriculumak irakaskuntza-moduluetan banatuta dago. Curriculumaren antolamenduaren ikuspegitik, **ordu-kopuru jakin bat duelarik, antolamendu eta ebaluazioko curriculum-unitatea hartzen da irakaskuntza-modulutzat; hau ardatz komun bat duten eta modu koherente eta aurrerakoian taldekatutako ikaskuntza-multzo batek osatzen du.**

Ikastetxeek arlo bakoitzaren derrigorrezko curriculumak horrela banatuko dute: derrigorrezko 12 modulu, gradu bakoitzeko lau, gehi aukerako irakasgaiak.

Ikastetxea hobeto antolatzeko, modulu guztiek "lauhileko" iraupena izango dute (irailetik otsailera edo otsailetik ekainera), gradu guztietan komunikazioari, gizarteari eta zientzia eta teknologiariko dagozkien arloak sartuz. Hauxe gain, II. eta III. gradutan aukerako irakasgaiak sartuko dira.

Hezkuntzako Ikuskaritza-zerbitzuak ikastetxe bakoitza irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan antolamendu hau egin dadila egiaztatuko du, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua ematea behar bezala ikuskatu ahal izateko.

Moduluak eta curriculumak banatzeko ordutegiari dagokionez, hauxe da helduei eskaini ahal zaien gradu bakoitzaren iraupena, orduetan emanda:

I. gradua : 4 lauhileko, 64 aste, 10 ordu/asteko = 640 ordu

II. gradua : 4 lauhileko, 64 aste, 12 ordu/asteko = 768 ordu

III. gradua : 4 lauhileko, 64 aste, 15 ordu/asteko = 960 ordu

3.3.- HLPP ematen duten ikastetxeekin koordinatzea

Lanbide Heziketako eta Etengabeko Ikaskuntzako sailburuordearen 2008ko abenduaren 22ko Ebazpenaren bidez (urtarrilaren 20ko EHAA), Helduen Hezkuntzako ikastetxe publikoen eta Hasierako Lanbide Prestakuntzako Programak ematen dituzten baina Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua emateko baimenik ez duten ikastetxe eta erakundeen arteko koordinazioa ezartzen da.

3.4.- Urrutiko hezkuntzarentzako laguntza.

Berlaratze-irakaskuntza eskaerari behar bezala erantzun ondoren, HHEko ikastetxeek laguntza pedagogikoa eskaini ahal izango diete UOHIn matrikulatuta dauden eta beren eragin-zonan bizi diren ikasleei, baldin eta ikastetxe horretako irakasleek horretarako ordu-kredituak badituzte eta tutoretzaren gai den gradu eta moduluan irakaskuntza-espezialitatea badute.



Iraileko bigarren hamabostaldian, alde batetik UOHIn matrikulatutako ikasle-kopurua eta beren jatorria ikusirik eta, bestetik, HHEko ikastetxe desberdinetan libre dauden ordu-kredituak ikusirik, Lurralde Ordezkaritzek, Osabidezko, Lanerako eta Helduen Hezkuntzarako zerbitzuaren bitartez, laguntza pedagogiko hori baimendu ahal izango dute, beti ere Hezkuntzaren Ikuskaritzaren txostena aztertu ondoren. Beraz, dagozkien orduak irakastordu gisa konputatuko dira dagozkien irakasleen ordutegi pertsonalean.

Horretarako baimena duten ikastetxeek, ikasle horiekin egingo dituzten jarduerak eta UOHirekin koordinatuta egoteko prozedura sartu beharko dituzte ikastetxearen urteko planean.

3.5.- Etorkinentzako hezkuntza-tratamendua

HHEko ikastetxeak oinarrizko prestakuntza urria duten etorkinentzat erreferente izango dira; pertsona horiek ikastetxe horietan alfabetatzen ari direnek jasotzen duten tratamenduaren parekoa jasoko dute.

Ikastetxe bakoitzak etorkinei emango dien gizarte- eta hezkuntza-arloko erantzuna pertsona horien kopuruaren eta ezaugarrien araberakoa izango da. Aurretik ezarrita dauden multzoetan txertatu ahal izango dituzte etorkinak, edo talde espezifiko bat sortu ahal izango dute, eta horretarako Hezkuntza Sailaren baimena beharko da.

Talde espezifiko bat baimentzeko honako prozedura honi jarraituko zaio:

- a) Lan-munduratzeko eta gizarteratzeko euskara edo gaztelania ikastea lehentasunekoa duten pertsonen zerrenda landuko da. Gutxienez zortzi pertsona izan beharko dute.
- b) Hizkuntza ikasteari eta gizarteratzeko eta lan-munduratzeko mekanismoak erraztuko dituzten estrategiak garatzeari lehentasuna emango dion jardun-plana diseinatuko da.
- c) Irailaren 30a baino lehen igorriko zaio ikasleen zerrenda eta talde espezifiko baimentzeko eskaera lurralde-ordezkaritzako Osabidezko, Lanerako eta Helduen Hezkuntzako Zerbitzuari. Zerbitzu horrek urteko aurrekontu-mugak kontuan izanik ebatziko du eskaera.
- d) Talde horietako ikasleen bertaratzea kontrolatuko da hileko erregistroen bidez. Erregistro hauek ikastetxeko idazkaritzan Hezkuntzaren Ikuskaritzaren eskura egongo dira bere ikustaldietan aztertu eta egiaztatzeko. Justifikatu gabe eta modu jarraituan ez bertaratzeak matrikula-eskubidea galtzea ekarriko du.

Beren jatorrizko herrialdean oinarrizko prestakuntza jaso duten pertsonen dagokienez, prestakuntza hori HHEko ikastetxean hasierako ebaluazioaren bidez neurtuko da; horrez gain, hizkuntza-maila egokia baldin badute, dagozkien moduluan eta graduari sartuko dira eta beraien mailan lehendik eratuta dauden taldeetan hartuko dute parte. Era horretan, HHEko ikastetxean prestakuntza-ibilbidea izateko aukera emango zaie, hala badagokio, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Graduatu-titulua eskuratzen duten arte.



4.- HELDUENTZAKO ASTEKO ORDUTEGIA

Helduek lehenengo graduan aste bakoitzean izango duten ereduazko ordutegia 10 ordukoa izango da talde bakoitzeko, eta arlo guztiei buruzko edukiak modu orokorrean irakatsiko dira. Hori dela eta, ordutegi bera izango da modulu guztietan.

Bigarren graduan 12 ordu eman beharko dira astean talde bakoitzeko, baina oraingoan ordutegia ez da bera izango hiru arloetan (komunikazioa, gizartea eta zientzia eta teknologia).

Hirugarren graduan asteko ordu-kopurua 15 ordukoa izango eta, oraingoan ere, hiru arloak bereiziko dira.

Halere, 2008ko urriaren 31ko Aginduaren 10.3 artikulua araberan, HHEko ikastetxeek bertaratze-modalitatea malgutu ahal izango dute zenbait helduk aurkez litzakeen salbuespen-egoeren araberan (pertsona helduen lana, gaixotasuna edo behar bezala justifikatutako bestelako arrazoiengatik)

Era berean, ikasle helduen berezitasuna eta lan-ordutegia kontuan hartuta, hemen adierazitako ereduazko ordutegia malgutu ahal izango da eta, beraz, denbora mugatua izanez gero, arlo guztiak eta gradu batean dagozkien modulu guztiak ikasi ordez, batzuk ikasi ahal izango dira, gainerakoak hurrengo lauhilekoetarako utziz.

Ondorengo lauki honetan jasotzen da orduen antolamendu hori:

ASTEKO GUTXI GORA-BEHERAKO BANAKETA			
ARLOAK	I. GRADUA	II. GRADUA	III. GRADUA
	ORDUAK	ORDUAK	ORDUAK
Komunikazioa		4	5
Gizartea		2	3
Zientzia eta Teknologia		4	4
Aukerako irakasgaiak		2	3
GUZTIRA	10	12	15

Irakastorduak goizez, arratsaldean eta gaez izan daitezke, beti ere, helduen beharretara egokitu beharko dela. Ahal dela, irakastorduak ondo bateratzeko aukera eskainiko da ikastetxeetan, izan ere, zenbait ikasle, lan-arazoak direla eta, agian ezin izango baitute jarrai-jarraian txanda berean bertaratu.

Irakastordu bakoitzaren iraupena zehazteko, ikasleen egoera eta premiak, ikasketak, irakaskuntza-ikasketaren ezaugarriak eta ikastetxearen antolamendua kontuan hartu beharrekoak badira ere, arau hauek bete behar dira, ikastetxeko moduluen banaketa eta ordutegiaren antolaketa errazago egitearren:



- Ikasleen asteko ordutegia astelehenetatik ostiralera barne izango da eta ikasle talde batek, egunean, gutxienez 2 orduko eskolak izango ditu. Hala ere, arratsaldean eta gauean irakastordua daukaten taldeen ostiraletako ordutegia, astean zehar, astelehenetik ostegunera bitartean banatu ahal izango da, ikasleei hobeto erantzuten bazaie eta OOGren onarpena jasotzen badu. Bere ezaugarriak talde baten asteko ordutegia aldatzea beharrezkoa izango balitz, aldaketa hori egiteko Lurralde Ordezkaritzak baimena eman beharko du, Hezkuntza Ikuskaritzak egindako txostena ikusita.
- Ez da eskolarik egongo ordubetetik behera iraungo duenik.
- Eskolen iraupena, bada, ordubeteko, ordu t'erdikoa eta bi ordukoa izango da.
- Bi ordutik gorako eskolak onartzekotan ere, teknologia, tailer edo antzekoak egiteko izango da, baina gehienez ere 3 orduko iraupena izango dute.

5.- AUKERAKOTASUN-ESPASIOAREN ESKAINTZA ETA ANTOLAMENDUA

Ikastetxeek II. eta III. graduetako aukerako irakasgaien eskaintza landuko dute. Eskaintza horrek ez du lau irakasgaien kopurua gaitutako gradu bakoitzean, eta honela banatuko dira: bi irakasgai komunikazio-esparrurako (Euskara eta Literatura eta atzerriko lehen hizkuntza –ingelese–) eta bat gainerako esparruetako bakoitzerako (gizarte-esparrurako eta esparru zientifiko-teknologikorako). Hala ere, II. eta III. graduetan aukerako irakasgaiak ezberdinak izan badaitezke ere, ikasleen hezkuntza ibilbidea ziurtatuko beharko du ikastetxeak bi graduetan.

Aukerako irakasgaien eskaintza hori Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatutitulua lortzeko matrikulatuta dauden pertsonen soilik zuzentzen zaie, betiere II. eta III. graduetako edozeinetan.

Osatu beharreko taldeek gutxienez 15 ikasle eta gehienez 30 ikasle izan beharko dituzte.

Ikastetxeko zuzendaritzak ekaina baino lehen igorri beharko dio dagokion ordezkariak Osabidezko, Lanerako eta Helduen Hezkuntzako Zerbitzuari irakasgai horien zerrenda. Irakasgai horien gradua eta esparrua, asteko ordu kopurua eta irakasgai horiek emango dituzten irakasleen titulazioa ere adierazi beharko du Ikastetxeko Zuzendaritzak. Hori nahitaezkoa izango da Etengabeko Ikaskuntzako Zuzendaritzak 2011-2012 ikasturteko lehen lauhilekoan irakasgai horiek ematea onartzeko.

Bigarren lauhilekorako aukerakotasun-eskaintza 2011ko abenduaren 1a baino lehenago aurkeztu beharko da onetsia izan dadin. Irakasgai berri bat eskaintzen bada edo aintzinakoa aldatzen bada, curriculum berria bidali behar da onetsia izan dadin.

Aukerako irakasgaiak egiteko, ikastetxeak bere lurraldeko Berritzegunen aholkularien laguntza jaso ahal izango du.



Ikastetxe bakoitzak antolatu beharko du aukerakotasunaren eskaintzari buruzko informazioa eman eta ikasleak beren aukera egin dezaten orientatzeko modua. Gainera, aukerak jasotzeko sistema bat ere ezarri beharko du.

Ikasleen aukeraketaren arabera, irakasgai hauek irakasteko taldeak antolatuko dira ondokoak kontuan hartuz:

- Irakasgai bat eskatu duten ikasleak 30 baino gehiago direnean, ikastetxeak talde bat baino gehiago antola dezake irakasgai bera irakasteko edo bakarra sortzea erabaki dezake. Azken kasu honetan, lehentasun-irizpideak ezarriko dira eta hauek publikoak izango dira.

-Ikasleei irakasten diren irakasgaien artean aukeratzea ahalbidetuko dieten antolamendu-formulak pentsatu beharko dira.

6.- ARAUTU GABEKO PRESTAKUNTZA PROGRAMEN ESKAINTZA

Helduen kualifikazioa hobetuko duten eta autoikaskuntzako ahalmena eta gizarte, kultura eta lan-bizitzan parte hartzeko ahalmena garatuko duten arautu gabeko prestakuntza-programak eman ahal izango dira ikastetxe horietan.

Ikasleak lan-eskaeran gidatuko dituzten edo lan berriak sortzeko prestatuko dituzten lanerako jarduerak eta irakaskuntzak nabarmenduko dira. Era berean, lan-munduratzeko eta gizarteratzeko zailtasun bereziak dituzten eta prestakuntzan urritasun eta premia handiak dituzten gizarte-sektoreentzako eta -taldeentzako arreta nabarmenduko da. Derrigorrezkoak ez diren irakaskuntza-mailetara –goi-mailako heziketa-zikloetara eta Unibertsitatera, besteak beste– sartzeko probetarako prestakuntza ere sartzen da prestakuntza-programa horien barruan. Ikastetxe bakoitzak programa horiek eskatu ahal izango ditu, betiere helduen hezkuntzako ikastetxe publikoei zuzentzen zaien 2011-2012 ikasturterako proiektuak aurkezteko deialdiari buruzko 2011ko apirilaren 18ko Ebazpenean ezarritakoari jarraituz.

Ebazpen horretan agertzen diren arautu gabeko programa mota horiez gain, helduengan honako kompetentzia hauek garatuko dituzten beste programa batzuk ere eskatu ahal izango dizkiote ikastetxeek Etengabeko Ikaskuntzako zuzendariari: teknologia, hizkuntza-komunikazioa, eta kultura humanistikoa eta artistikoa. Nolanahi ere, eskatuko den proiektuen kopuruak ez du gaindituko irakaskuntza arautuko I., II. eta III. graduetan eskaintzen den talde-kopuruaren % 50. I. graduako taldeak zenbatzerakoan ez dira aintzat hartuko espainierako eta euskarako etorkinen talde espezifikokoak. Hizkuntza eta teknologia gaitasunak garatzen dituzten programetan bi gaitasun-maila ezarri ahal izango dira. Talde bakoitzari dagokion ordu-kopurua gehienez 3 ordukoa izango da.

7- EGUTEGIA

Eskolen egutegien oinarrizko arauak aipatzen dituen Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren 2008ko martxoaren 10eko Aginduarekin bat etorri eta Helduen Hezkuntzako Ikastetxeetarako Hezkuntza sailburuordearen maiatzaren 13ko Ebazpenean zehaztutako arauekin bat etorri, honelakoa izango da 2011/2012 ikasturterako eskola-egutegia.



Guztira, 175 eskola-egun izango dira; kopuru horren barruan sartuko dira HHEko ikastetxeetako jarduera bereziak, hala nola, matrikulazioa egiten denetik lauhileko bakoitza hasten den bitartean egiten diren banan-banako elkarrizketak eta sarrera-probak. Lehenengo lauhilekoko zuzeneko irakaslanak irailaren 15ean hasi beharko dira eta urtarrilaren 27an bukatu; eta bigarren lauhilekoak otsailaren 6an hasi eta, beranduen jota ere, ekainaren 22an bukatu. Urtarrilaren 30etik otsailaren 3ra bitarteko astean banan-banako elkarrizketak eta sarrera-probak egingo zaizkie bigarren lauhilekoan taldeetara sartzen direnei. Ekaineko azken egunak, aipatutako ebazpenean jasotzen den bezala, ez dira irakasteko izango eta ikastetxearen plana ebaluatzeko erabiliko da; halaber, aste horretan ikasturtearen memoria egin beharko da, bai eta eskatzen diren administrazio-agiri guztiak bete ere.

8.- MATRIKULAZIOA

HHEko ikastetxeetan ikasi ahalko dute 18 urtetik gorako pertsonak edo matrikulazioa egiten duten urte naturalean 18 urte bete dituztenak, baita 16 urte beteta eduki eta lan-kontratu bat izateagatik araubide arrunteko ikastetxeetara joan ezin dutenek eta errendimendu handiko kirolariek ere. 2011-12 ikasturtean, salbuespenez, urte naturalean 18 urte bete ez dituzten eta HLPP gainditu duten pertsonak ikasi ahalko dute.

Ezingo dute HHEko ikastetxeetan ikasi 2011-2012 ikasturtean Bigarren Hezkuntzako Graduatua eskuratzeko irakaskuntza ofizialen batean matrikulatutako pertsonak.

2011-2012 ikasturterako matrikula-epeak ezarrita daude: lehenengoa irailean eta bigarrena urtarrilaren 16a eta 27a bitartean; nolana ere, kasu bereziak epe horietatik kanpo aztertzea gomendatzen da.

Iraileko lehen hamabostaldian matrikulatuko dira dagozkien graduatan Bigarren Hezkuntzako Graduatua eskuratu nahi duten ikasleak. Hau da, gradu guztietako ikasketa arautuak egingo dituztenak, bai gradua gainditzera daramatenak eta bai, III graduari dagokionez, Bigarren Hezkuntzako Graduatu Titulua eskuratzera daramatenak. Hurrengo astean, titulua eskuratzera bideratutako ikasketa arautuen beharrez behar beste bete dela bermatutakoan, ikastetxeek arautuak izan gabe eskaintzen dituzten heziketa-programetan bakarrik parte hartu nahi duten ikasleak matrikulatu ahalko dira.

Bigarren matrikulazio-epean, urtarrilaren 16tik 27ra doana, ezingo dira HHEn matrikulatu ikasturte horretan dagoeneko Bigarren Hezkuntzako Graduatua eskuratzera bideratutako ikasketa arautuetan matrikulatuta dauden ikasleak.

Orobat, ezingo dute UOHIn matrikulatu ez lehen matrikulazio-epean (2011ko iraila) ez eta bigarrean (2012ko urtarrila) ere, ikasturte horretan dagoeneko titulu hori eskuratzera bideratutako ikasketa arautuetan matrikulatuta dauden ikasleak, 2006ko uztailaren 20ko Aginduak (EHAA, 2006ko urriaren 1a) jasotzen dituen salbuespen-egoeretan izan ezik.

Matrikulazioa ezarritako epeetan egin dutenek izango dute lehentasuna matrikula egiteko. Ikastetxearen edukierak eta irakasleen kopuruak baldintzatuko dute talde-kopurua.

Ikasleak arlo osoan edo horietako moduluren batean matrikulatu ahal izango dira, urte osorako edo lauhileko baterako. Nolanahi ere, irailean matrikulatutakoek, bigarren



lauhilekoan ikasten jarraitu nahi badute, ez dute berriz urtarrilean matrikulatu beharko eta ikastetxeak ikastokia ziurtatuko die.

Helduek bete beharreko matrikula-orriak I. eranskinean azaltzen dira.

9.- IRAKASLEEN IZENDAPENA

Euskal Eskola Publikoari buruzko 1/1993 Legean ezarritakoari jarraiki, zuzendaritza-taldeak antolatu behar ditu irakasle-taldeak, eta ikasturtearen hasieran erabaki zein irizpide erabiliko diren irakasleei beren ikasle-taldeak izendatzeko. Beti ere, irakasleari bere kidegoa eta arlo bakoitzeko irakasgaitasun-aitormena edo espezialitatea errespetatuko zaizkio.

Ikasketa arautuen matrikula-epea bukatutakoan, zuzendaritza-taldeak izendatuko ditu gradu, arlo eta ikasle-talde bakoitzerako irakasleak.

Irakasleen gainerako orduekin, berriz, arautu gabeko eskaintza antolatuko du.

Irakasleen izendapenak egiteko orduan, zuzendaritza-taldeak ez du bakarrik kontuan izango irakasle-postuari dagokion espezialitatea. Horrekin batera, zeintzuk diren gaitasuna duen gainerako espezialitateak eta irakaskuntza-laneko esperientzia ere kontuan izango da, irakasle bakoitzaren irakastordu guztiak betetzearren.

Taldeak esleitzean zuzentasun-irizpideei jarraituko zaie eta irakaskuntzaren kalitatea bilatuko da. Nolanahi ere, ondoko irizpideak errespetatu beharko dira:

- 1 - I. eta II. graduak maisu-maistren kidegoko irakasleek irakatsiko dituzte.
 - 2.- III. graduako lehen bi moduluak maisu-maistren kidegoko irakasleek nahiz bigarren hezkuntzako irakasleen kidegokoek irakatsi ditzakete.
 - 3.- III. graduako azken bi moduluak bigarren hezkuntzako irakasleen kidegoko irakasleek irakatsiko dituzte.
 - 4.- Maisu-maistren kidegoko irakasleek nahiz bigarren hezkuntzako irakasleen kidegokoek irakatsi ahal izango dituzte ikastetxeari baimentzen zaizkion arautu gabeko prestakuntza-programak, nahi badute.
 - 5.- Halaber, ikastetxeko irakasle guztiak, beren jatorrizko kidegoa zein den kontuan hartu gabe, oinarrizko prestakuntzan ikastetxekak ezarritutako heziketa-errefortzuetan eta laguntza pedagogikoetan irakatsi beharko dute beren asteko irakastorduak osatu arte.
 - 6.- Aurreko irizpideak beteta, ahal dela saihestu egindo da beharrezkoak direnak baino irakasle gehiagok dagokien ikastetxearen menpe dauden txanda eta/edo zirkulu edo gela desberdinak banatu behar izatea.
- Irakasle batek gutxienezko irakastorduen kopurua betetzen ez duenean, zerbitzu-beharrak hala eskatzen badu beste ikastetxe batean osatuko du ordutegia. Kasu horretan, hori kontuan izango da ordutegiak osatzeko orduan, irakasle horrek egun berean ikastetxe batean baino



gehiagotan eskolarik ez duela eman behar gogoan izanda, eta hori ezin bada, joan-etorriak egiteko erabilitako denbora ikastetxean eman beharrezko ohiko orduetatik kenduko da.

7.- Ikastetxeko Zuzendaritza-taldeak dagozkien irizpideak finkatuta ez baditu, Ikasketa-buruak ondoko sistema erabiliko du: irakasle guztiek, banan-banan, taldea eta txanda aukeratuko dute; hurrenkera finkatzeko honako irizpideak erabiliko dira:

I eta II graduak:

Maisu-maistrak: Maila hauen arabera ordenatuko dira:

- 1.- Ikastetxean behin-betiko destinoa duten maisu-maistrak.
- 2.- Ikastetxean behin-betiko destinoa ez duten maisu-maistra funtzionarioak, zerbitzu-eginkizunetan edo behin-behineko destinoan daudenak.
- 3.- Bitarteko maisu-maistrak.

.- Ikastetxean behin betiko destinoa duten maisu-maistrak apirilaren 16ko 81/1996 Dekretuaren VI. Tituluan (1996ko maiatzaren 3ko EHAAn) jasotako antolamendu irizpideen arabera ordenatuko dira.

- a) Behin-betiko destinoa duen karrerako funtzionari gisa antzintasun handiagoa edukitzea ikastetxean.
- b) Maisu/Maistren Kidegoan karrerako funtzionari gisa zerbitzuan denbora handiagoa eman izana.
- c) Antzintasun handiagoko sarrera-promozioa eta, honen barruan, lortutako puntuaziorik handiena.

III gradua, 1 eta 2 moduluak:

Behin I eta II graduak eta III graduaren 2 eta 3 moduluak bete direnean, honela egingo da:

- a) Esleipena maisu-maistren kidegoko irakasleen artean bada, I eta II graduaren arabera egingo da.
- b) Esleipena Bigarreneko kidegoko irakasleen artean egiteko bada, III gradua, 3 eta 4 moduluen arabera egingo da.
- c) Bakar-bakarrik hautatu ahal izango dituzte talde hauek, maisu-maistrek taldeak erabat hautatutakoan hutsik geratu direnak. (Urtarrilaren 23ko 25/96 Dekretuaren 32.4. artikuluan (1996ko urtarrilaren 26ko EHAAn))

III gradua, 3 eta 4 moduluak:



Bigarren Hezkuntzako kidegoetako irakasle: Maila hauen arabera ordenatuko dira:

1.- Bigarren Hezkuntzako kidegoetako irakasle funtzionarioek ikastetxean behin-betiko destinoa badute. Apirilaren 16ko 86/2002 Dekretuaren 16. artikuluan (2002ko apirilaren 19ko EHAAn) jasotako baremoaren arabera ordenatuko dira, urriaren 10eko 198/2006 Dekretuaren hirugarren artikulua (2006ko urriaren 25eko EHAAn) xedatzen dituen aldaketekin.

Eskubide hobea ondorengo bi faktore hauen batura kontuan izanik zehaztuko da:

- a) Parte hartzen deneko zentroan behin-betiko destinoa duen karrerako funtzionario gisa emandako zarbitzu-denbora etengabea.
- b) Parte hartzen dueneko Kidegoko karrerako funtzionari gisa emandako zerbitzu-denbora.

2.- Bigarren Hezkuntzako kidegoetako irakasle funtzionarioek ikastetxean behin-betiko destinoa ez badute, ikasturte honetan zarbitzu-eginkizunetan edo behin-behineko destinoan badaude. Kasuan kasuko kidegoko karrerako funtzionari gisa emandako zarbitzuen denboraren arabera ordenatuko dira.

3.- Lan-legepeko kontratudun bitarteko irakasleak. Egoera horretan emandako zarbitzuen denboraren arabera ordenatuko dira.

10.- URTEKO JARDUNALDIA

Dagokion hezkuntza-akordioan araututako jardunaldi-motak eta egutegia edozein direla ere, 1.462 ordukoa izango da irakaskuntzako arduraldiko erregimena. Ebazpen honetan zehazten dira asteko jardunaldiko jarduera eta horren banaketa ikastorduetan, bai eta ordutegi osagarria eta ikastetxean igaro beharreko ordutegia ere.

Enplegatu Publikoen Oinarrizko Estatutuaren apirilaren 12ko 7/2007 Legearen 50. artikulua arabera, irakasle funtzionarioek eskubidea izango dute ordaindutako hogoita bi egun balioduneko oporraldia izateko urte natural bakoitzean, edo, zerbitzuan emandako denbora urtebetera iristen ez bada, proportzioan dagozkien egunetako oporraldia izateko. Ondorio horietarako, larunbatak ez dira joko egun balioduntzat.

Oporraldi hori abuztuan izango da urtero, eta inoiz ez da hartuko iraileko egunik.

Oporraldia eten egin ahal izango da horren barruan gaixoaldi edo istripuren bat gertatuz gero. Gorabehera horiek pasa eta medikuaren alta jaso ostean, interesdunak oporraldiarekin jarraitzeko aukera izango du.

Aldi bakar batean hartuko da hartu gabeko oporraldia, eta, ahal izanez gero, irakastordurik ez dagoenean.

Aurreko artikuluan araututako oporraldiaren aurreko egun moduan metatuko dira Eusko Jaurlaritzaren mendeko langile publikoentzat araututako egunak, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren apirilaren 12ko 7/2007 Legearen 48.1.k) artikuluan eta



Euskal Autonomia Erkidegoko Administraziooko Negoziazio Mahai Orokorrak 2009ko azaroaren 18an hartutako akordioan (EHAA, 2010-02-26koa) xedatutakoari jarraiki, bai eta lege horretako 48.2. artikuluan ezarritako norberaren gauzetarako egun gehigarriak ere.

11.- IRAKASLEEN ASTEKO JARDUNALDIA

11.1.- Irakastorduak

Funtzio Publikoaren Erreformarako neurriak ezartzen dituen abuztuaren 2ko 30/1984 Legearen arabera, dedikazio-araubide bakar bat hartzen da abiapuntutzat, alegia gainerako funtzionarioentzat izaera orokorrarekin ezarritakoa bezalako araubidea.

Lan-jardun horretatik, asteko 30 ordu zuzenean ikastetxeari eskainiko zaizkio. Dedikazio horretatik, **asteko 23 ordu ikastetxean egon beharrekoak izango dira eta horien artetik, gutxienez, 17 ordu irakasteko izango dira**. Asteko 18 irakastordu baino gehiago izango dituen irakaslerik ez izatea saiaturiko da. Irakaslearen ordutegiak 18 irakastordu dituenean, soberako ordua zaintza-ordutegitik kenduko zaio, halako moldez non ikastetxean eman beharreko ohiko egonaldiko orduak 23 izango diren. Era berean, Zuzendaritzak kausa justifikatua dela eta, irakaslearen ordutegiak 17 irakastordu baino gutxiago baditu, Zuzendariak zaintza-ordutegia gehitu, edota beste jarduera batzuk esleituko dizkio, kasu guztietan bete daitezten ikastetxean eman beharreko ohiko egonaldiko 23 orduak.

Irakasle bakoitzak ikastetxean egon ohi diren 23 orduak (15, 11 eta 8 ordu, hurrenez hurren, jardunaldiaren 2/3, 1/2 eta 1/3 ematen duten irakasleentzat) asteko egun guztietan banatuko dira, egunero ikastetxean gutxienez bi ordu egonik, astelehenetik ostiralera, jardunaldi osoa daukaten irakasleentzat, eta egunero ikastetxean gutxienez bi ordu egonik gutxienez lau, hiru eta bi egunetan asteen, hurrenez hurren, jardunaldiaren 2/3, 1/2 eta 1/3 ematen duten irakasleentzat.

Ikasleen ikastordutegian agertzen den tutoretza-ordua, berau irakasten duen irakaslearen irakastordu gisa zebaturiko da.

Irakasleren batek, talde, modulu edo graduei atxikia izan ondoren, irakastorduak betetzen ez baditu, ikasleekiko zuzeneko laguntza-eginkizunak edota heziketa eta antolamendu proiektuak egiteko edo koordinatzeko lanak esleituko dizkio ikasketa-buruak, irakasle horri dagokion ordutegia bete arte. Eginkizun horiek, edozein modutan ere, ikastetxearen irakaskuntza-jardueren programan sarturik egon beharko dute, eta DAEn azaldu beharko dira (DAE Ikastetxearen Urteko Planean sartuta dago).

Ikastetxean ohiko egonaldiko ordutegiaren barruan, egun batean udalerrri batean baino gehiagotan elkarrekin eskola eman behar duten irakasleen joan-etorriak ohiko egonaldiko ordutzat hartuko dira. Ikastetxean bete beharreko gainerako orduak (gehienez ere 23) ondoren azaltzen den bezala banatuko dira, irakasle bakoitzaren karguaren arabera:

- Ikasleei arreta indibiduala eskaintzeko edo/eta tutoretza indartzeko asteko ordu bat.
- Prestakuntza-jardueretarako asteko ordu bat.



- Didaktika-departamentuen bileretarako asteko ordu bat.
- Graduako irakasle-ekipoen bileretarako asteko ordu bat.
- Zirkulu/Gelaren antolamendu-koordinaziorako asteko ordu bat.
- Irakasleen hutsegiteak betetzea.

HLPP ematen duten ikastetxeekin koordinatzea

Zuzenean ikastetxeari eskaini beharreko gainerako asteko 7 orduak hilean zenbatuko dira eta ondokoetarako erabiliko dira: departamentuaren jarduerak sustatzea, taldeko organoen bilerak egitea, ebaluazio-batzordeak biltzea, ikastetxearen plangintza- eta antolamendu-tresnak lantzea, taldeko edo graduako irakasleen koordinazio-bilerak egitea, eta jarduera osagarri eta eskolaz kanpoko jardura batzuk.

Gainerako asteko orduak, dedikazio zuzenekoak ez direnak, irakaslanetarako, irakasleen lanbide-prestakuntza hobetzeko eta irakasle-funtzioarekin loturiko beste gai batzuetarako erabiliko dira.

Gutxienez hamabost egunean behin, bi orduz, ahalik eta irakasle gehien biltzea saiatu behar da, ikastetxearen jardura orokorraren plangintza- eta antolamendu-dokumentuak lantzeko, halaber, prestakuntza-jardueretarako asteko orduan.

Urtarrilean egiten den bigarren matrikulazioaren ondorioz, ikastetxean dauden beharrak edo ikastalde-kopurua handitu badira eta zuzeneko irakaslanean ordu gehiago eman behar dela iritziz gero, behar hainbat ordu hartuko dira ordu-kreditu horietatik. Horrelako kasuetan, beharrezko izanez gero, ikastetxearen ordutegia aldatu egin ahal izango da, baina modu batean zein bestean, irakaslearen jarraipena ziurtatu beharko da 1. lauhilekoan emandako moduluaren jarraipena den 2. lauhilekoa emateko, eta inola ere ez du aldaketarik edo kalterik ekarriko ikasleen ordutegirako.

11.2.- Gaixotasun kronikoa duten familiartekoei arreta emateko baimena duten irakasleak.

2. mailara arteko senideei arreta emateko baimena duten irakasleek, indarrean dagoen akordio arautzailean ezarritakoari jarraiki, 50 ordu izango dituzte ikasturteko. Baimen hori erabili ahal izateko, ikastetxeko zuzendaritzarekin koordinazioan jardun behar dute, horrela, eskatzaileak ematen duen zerbitzuko beharrak estali ahal izango dira. Hori gauzatzeko orduan, hezkuntza- eta antolakuntza-koherentzia bermatu behar dira.

Pertsona eskatzailearen eta ikastetxeko zuzendaritzaren artean eztabaida sortzen bada baimen hori erabiltzeko modua adosterakoan, eta pertsona interesduna ez badator bat zuzendaritzaren erabakiarekin, erreklamazio bat aurkeztu ahal izango du Hezkuntzako Lurralde Ordezkararen aurrean, eta horrek ebatziko du erreklamazio hori, Hezkuntza Ikuskaritzaren txostena aztertu ondoren.



11.3.- Zuzendaritza-taldea

Zuzendaritza-taldeak, ikastetxe bakoitzaren arabera, zenbait ordu izango ditu erabilgarri eta bere kideen artean banatuko ditu ikastetxearen Antolamendu eta Jarduera Araudiak zehazten duenari jarraiki, Ordezkaritza Organo Gorenak onartu badu eta Ikuskaritzaren legezotasun-txostena jaso badu. Zuzendaritza-taldeari esleitutako ordu horiek eta ikasleekiko zuzeneko laguntza-eginkizunak betetzeko orduak maila bera dutenez, karguari dedikatu beharreko ordu gisa agertu beharko dute ordutegian. Ahaleginak egingo dira, bidenabar, ikastetxea zabalik dagoen artean zuzendaritza-taldeko kide bat gutxienez bertan egon dadin.

Euskal Eskola Publikoaren Legean zehaztuta dauden zuzendariak, ikasketa-buruaz eta idazkariak gain, eta Lege horren 30.2 artikuluan xedatutakoa betez, ikastetxean bertako Antolamendu eta Jarduera Araudian ezarritako beste zuzendaritza-kargu batzuk izan daitezke. Hezkuntza Administrazioak erabakiko du dagokien osagai ekonomikoa jaso behar duten zuzendaritza-karguak zein diren.

40 ikaslez osatutako zirkuluak esleiturik dituzten ikastetxeetan, Irakasle Arduradun bat egongo da gutxienez. Honek zuzendaritza-karguaren maila izango du eta ondoko funtzioak beteko ditu:

- a) Ikastetxeko zuzendariak emandako aginduei jarraiki, zirkuluaren funtzionamendua zuzendu eta koordinatzea.
- b) Arauak, xedapenak, proiektuak eta jarduera-programak betearaztea eta zirkuluaren jardueran eragina duten erabakiak ere betearaztea.
- c) Zuzendariaren ordezkari gisa, zirkuluko langile guztien buruzagitzaz arduratzea, langile horiek bertan duten jarduerari dagokionez, gai horretan ikastetxeko zuzendariak dituen eskuduntzak errespetatuz eta, beti ere, haren aginduei jarraituz.
- d) Zirkuluko irakasleek ikasketa-ordutegiak bete dezaten zaintzea.
- e) Instalazioak, altzariak eta zirkuluaren ikasmateriala egoera onean kontserbatzeko zaintzea.

Ikastetxean matrikulatu diren ikasle ofizialak kontuan hartuz, ikasturte honetan zuzendaritza-taldeak ondoko murrizketak izango ditu bere irakastordutegietan:

ZUZENDARITZA-KARGUEN IRAKASTORDUEN MURRIZKETA

IKASLE-KOPURUA	IRAKASTORDUEN MURRIZKETA
0-200	15
201-400	21
401-600	24
601-800	27
801-1000	31
1001-1200	35
1201-1600	38
1600 baino gehiago	43



Hiru Lurralde Historikoetako Ikastetxe guztietako zuzendariek aste guztietako ostegunak gorde beharko dituzte, bileraren baterako deia egiten bazaie-edo, bilera horretara joan ahal izateko.

Zuzenean ikastetxeari eskaini beharreko 30 orduetan egin behar dituen irakaslanak eta bestelako eginkizunak jasoko dira zehatz-mehatz irakasle bakoitzaren ordutegian.

Bestalde, ordu-kreditu guztien banaketa ere ikastetxearen planean azaldu eta Ordezkaritza Organo Gorenak onartu beharko du.

11.4.- Eskola-orduen heren bateko murrizketa duten irakasleak

Osasun-arazo larriak direla eta eskola-orduen heren bateko murrizketa lortu duten irakasleek eta 60 urte baino gehiago duten edo urte honetan 60 urte betetzen dituzten irakasle guztiek, (baldin eta 2011ko irailaren 1ean 65 urte ez badituzte, edo 65 urte beteta izan arren, erretiroa hartzeko eskubidea kausatzeko beharrezko gabezia-aldia estalita ez badute edo egiaztatutako beharra aplikatzeko beste egoeraren batean badaude, Batzorde Parekideak aztertuta indarrean dagoen akordioari jarraiki, irakasletza zuzeneko jarduna astean 6 orduetan murriztu ahal izango dute. Murrizketa hori borondatezkoa da eta ez du esan nahi ikastetxean egon beharreko ordutegia murriztuko denik.

Irakasleek murrizketa-ordu horiek ikastetxearen mesedetarako erabili beharko dituzte; hau da, liburutegia zaintzen, ekintza osagarri eta eskolaz kanpoko antolakuntzan esku hartzen, zaintzak egiten eta ikastetxeko Zuzendaritzak eman ahal izango dien antzeko zereginetan parte hartzen. Ekintza hauetan ematen dituen orduak irakaslearen ordutegian jaso egingo dira.

11.5.- Irakaskuntzaz kanpoko jardueren ardura, (Liburutegia, Ikus-entzunezkoak, Zuzendaritzari laguntza, Kalitate Programaren Gestioa, Hizkuntza Normalkuntza, IKT arduraduna eta abar).

- Ikastetxeren batean irakasleren batek irakaskuntzaz kanpoko jardueren ardura besterik ez duenean, irakasle horren asteko ordutegia 30 ordukoa izango da, osasunari buruzko arrazoiengatik zerbitzu-eginkizunean dauden irakasleen kasutan izan ezik. Kasu hauetan irakasle hauen asteko ordutegia 23 ordukoa izango da.

- Irakasle batek lan horiek gauzatzen ematen baditu bere irakastordu batzuk, honela antolatuko da horren ordutegia: murriztutako eskola-ordu bakoitzeko, ordu eta erdi eman beharko du lan horiek egiten. Ondorioz, ikastetxean igaro beharreko ohiko ordutegiari, asteko 23 ordukoa denari, ordu erdi gehituko zaio irakaskuntzakoak ez diren lanetan emandako ordu bakoitzeko; edonola ere, asteko 30 ordukoa izango da gehienez ordutegia. 60 urte baino gehiago daukaten irakasleen sei orduko murrizketari ez zaio aplikatuko arautegi hau.

- Zuzendariak finkatuko ditu liburutegia ireki eta ixteko orduak, zerbitzu honetan dihardutenen lan-eskubideak errespetatuz.



- Ikastetxearen antolamenduak horretarako aukera ematen duen bitartean, gainerako zerbitzuak behar beste beteko direla ziurtatu ondoren, Ikastetxeko Zuzendaritzak gainerako irakasleen ordu batzuk ezarri ahal izango ditu horretarako eta ordu horiek jagoletza orduetan konpentsatuko dira.

11.6.- Ikastetxearen ordutegia agerian jartzea

Ikastetxearen ordutegia ikusgai egon beharko da honako toki hauetan: irakasleen gelako iragarki-oholean, ikasketa-burutzako iragarki-oholean eta ikastetxeko estamentu guztiek sartzerik duten beste tokiren batean. Halaber, ikastetxearen egoerari buruzko informazioa ere denon begi bistan egon beharko da, batez ere irakasle bakoitzaren ordutegia eta lantokia (irakatsiz nahiz irakatsi gabe ikastetxean eman beharreko denborarena). Informazio hori guztia OOGari helarazi beharko zaio eta hezkuntza-komunitateko edozein kideren esku egon beharko da. Datu pertsonalak babesteari buruzko araudira egokituta egon beharko du.

12.- IRAKASLEEN ASISTENTZIA

12.1.- Jardunaldia betetzeko kontrola

Irakasleek bete egin behar dituzte bai irakastorduak nahiz irakatsi gabeko orduak. Horretarako, Hezkuntza, Unibertsitate eta ikerketa Sailak behar diren kontrol-bide guztiak ezarri ahal izango ditu.

Ganorazko arrazoirik izan gabe ordutegia oso-osorik betetzen ez bada, dagokion Zonaldeko Ikuskaritzari jakinarazi beharko zaio eta ordainsariaren deskontua ekar dezake, beti ere Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legeak ezarritakoarekin bat eta bidezko diratekeen disziplina-erantzukizunak alde batera utzi gabe.

12.2.- Asistentzia-agiriak

Hil bakoitzeko 5. eguna baino lehen, ikastetxeetako zuzendariak aurreko hileko bertaratze-agiriak bidali beharko dituzte Ikuskaritzako zonalde burutzara. Irakasleek greba egiten dutenean, aipatutako bertaratze-agiriaz gain, greba egin duten langileen izenen zerrenda bidali beharko da grebaren biharamunean.

Ikastetxeek Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak horretarako diseinatutako aplikazio informatikoaren bidez prestatu beharko dituzte bertaratze-agiriak eta Hezkuntzako Ikuskaritzak jakinarazitako jarraibideak jarraituz. Aplikazio bera erabiliko da greben gorabeherak jakinarazteko eta greba egin duten langileen izen-abizenen zerrenda prestatzeko.

Hileroko agiriak irakasle guztien bertaratze-agiriak izango dira, eta betetzeko honako argibide hauek hartuko dira kontuan:

· Ezingo da bete gabe utzi "hutsegitearen arrazoia" azaltzeko tartea; hala utziz gero, hutsa arrazoirik gabekotzat hartuko da.



- Hutsegite guztiak aipatu behar dira, inongo salbuespenik gabe.
- "Hutsegitearen arrazoia" azaltzeko tartean "norberaren eginbeharrak" Hezkuntza Lurralde Ordezkariek irakasleari dagokion lizentzia eman badio bakarrik jarri ahal izango da.
- Eskolaz kanpoko jarduera guztiak Ordezkaritza Organo Gorenak onartu beharko ditu. Irakastorduen barne eskolaz kanpoko jarduerengatik irakaslea ikastetxetik kanpo egotea ez da hutsegite bat, eta beraz, ez da hutsegite-partean jaso behar.
- Bertaratze-agiriaren aldakia jendaurrean jarriko da irakasleen gelan, hil bakoitzeko 5. eguna baino lehen. Beste kopia bat Ordezkaritza-Organo Gorenaren esku utziko da. Kopia hauetan, "Hutsegitearen arrazoia" azaltzeko tartea bete gabe geratuko da. Hutsa justifikatuta ala arrazoirik gabekoa den besterik ez da azalduko
- Aldi lektiboetan irakasleak falta badira, egoera horri aurre egin eta ikasleei arreta egokia emateko ikastetxean prestatu den prozeduraren berri eman beharko zaio OOGri.

Eskolak betiko moduan ematearen aurkako edozein gorabehera berehala jakinarazi behar zaio telefonoz Ikuskaritzari, bertaratze-agirian jasota geratuko bada ere.

Ikastetxean ez egotea (edo lan ordutegia ez betetzea) Euskal Autonomi Elkarteko Unibertsitatekoa ez den Irakasleko Publikoarentzako Akordioan agertzen diren bestelako arrazoiengatik gertatzen baldin bada, arrazoiak ikastetxeko Zuzendariaren aurrean egiaztatuko dira, zeinek, bidezkoa joz gero, hutsegitea justifikatzeari ekingo dion.

Irakasleek behar bezala aurkeztu beharko dizkiote hutsegitearen arrazoitze-agiriak Zuzendaritzari, honek noiz eskatu zain egon gabe. Sailak liberatuentzat antolatutako hobekuntza eta euskalduntze-ikastaroetan parte hartzen denean, ikastaroak antolatu dituen ikastetxeko edo erakundeko zuzendariari aurkeztu beharko zaio arrazoi zurigarrien egiaztatzea.

Bertaratze-agiriarekin batera ez da hutsegiteen ziurtagirik bidaliko. Horiek ikastetxean artxibatu eta Hezkuntzako Ikuskaritzaren eskura egongo dira. Ziurtagirietan hutsegitearen eguna, ordua eta arrazoia zehaztu beharko dira. Orijinalak eta argiak izan beharko dute.

13.- DEPARTAMENTUAK

Ikastetxean departamentu mota bi eratu ahal izango dira. Departamentu didaktikoak: hiru izango dira, bat arloko; eta departamentu ez-didaktikoak, esaterako, Orientazio Departamentua eta pedagogia antolatu eta koordinatzeko egokitutako jotzen diren guztiak. Irakasleen arloaren arabera, irakasleak departamentu didaktikora edo ez-didaktikora atxikita egongo dira. Ikastetxeko irakasle guztiak izan beharko dira departamentu didaktikokoak edo ez-didaktiko batekoak; 1. graduako irakasleak departamenturik antzekoenera atxikiko dira.

Departamentu didaktikoak eta ez didaktikoak lan-taldeak dira eta, bertako arduradunaren edo buruaren zuzendaritzapean, arlo berbera irakasten duten irakasleen arteko



koordinazioa bermatzea dute helburutzat. Organo hauen zeregina guztion artean burutu beharrekoa da eta beren lanak kide guztien erantzukizuna dira.

Zuzendariak hautatuko du departamentu-burua, beti ere, ondoko irizpideak kontuan hartuta:

1.- Departamentu-buruak departamentu horretako irakaslea izan beharko du, eta ezin izango du bestelako zuzendaritza- kargurik izan.

2.- Bigarren Hezkuntzako Katedradunen Kidegoko irakasleen artean hautatuko da departamentu-burua, salbu eta departamentuko inor Kidego horretakoa ez denean. Ezin izendatuko da departamentu-buru, ezein kasutan, Bigarren Hezkuntzako Katedradunen Kidegokoa ez den irakaslerik, departamentuan Kidego horretakoa den eta beste zuzendaritza-kargurik betetzen ez duen beste irakasleren bat baldin badago.

3.- Goragoko irizpideei men eginda, departamentu-burua ikastetxearen Antolamendu eta Jarduera Araudian xedatutakoaren arabera aukeratuko da. Berezko Antolamendu eta Jarduera Araudirik ez duten ikastetxeetan edota, halakorik izan arren, departamentu-burua aukeratzeko modua aurreikusi gabe dutenetan, ikastetxeko zuzendariak aukeratuko du departamentuko kideen proposamenez. Departamentuak inolako proposamenik egiten ez badu, erabakia ikastetxeko zuzendariak bakarrik hartuko du.

Behin izendatu eta gero ezin izango dio karguari uko egin, hartara, ikasturte hasierarako departamentu-burutzat guztiak beterik egongo dira.

Ikastetxeko zuzendariak izendapena Eskolako Jardueren Agirian eta Klaustroaren aktetan jasoko du, dagozkion ondorio administratiboak izan ditzan, eta gainera, departamentu bakoitzeko buruaren izena igorriko dio Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzako Nominen Unitateari, dagokion osagaia ordaintzeari ekiteko.

Ikastetxeko ordutegian gutxienez asteko ordu bat utzi beharko da, departamentuko kide guztiak bildu ahal izateko, ordu hori ikastetxeko irakastordutegian agertuko delarik. Ikasketa-buruak hau kontuan izan beharko du ordutegiak antolatzeako orduan. Bilera horietara joatea derrigorrezkoa izango da departamentuko kide guztientzat.

Ekainean departamentuko kideak bilduko dira laneko plana, bere lorpenak eta hurrengo ikasturterako egin behar diren zuzenketak aztertzeako. Horri dagokion informazio-memoria urteko memorian sartuko da.

Departamentu didaktikoei dagokie ondoko zereginak burutzea:

- a) Arloen programazioa lantzea, bereziki curriculum eta honen gradu eta moduluko banaketa zehaztuz, bai eta ebaluazio-irizpideak erabakiz ere.
- b) Bere arloarekin erlazionatutako aukerakotasun-espazioko irakasgaiak proposatzea.
- c) Ebaluazio-probak egitea eta kalifikazioei buruzko erreklamazioei erantzutea.
- d) Bere espezialitatearekin erlazionatutako prestakuntzako, berrikuntzako edo baliabideen lanketako proiektuak proposatzea.



Departamentu-burua da honen jardueraren arduraduna eta ondokoak dira bere eginkizunak:

- a) Taldearen jarduera osoa zuzendu eta koordinatzea.
- b) Bilera desberdinak antolatu, prestatu eta zuzentzea.
- c) Edukiei eta gutxieneko eskakizun-mailari dagokienez programazioa bete dadin zaintzea.
- d) Departamentuak landutako ebaluazio-proben kalifikazioa gainbegiratzea, bai urtarrilean bai eta ekainean ere.
- e) Lanak bere kideen artean banatzea.
- f) Ikasketa-buruarekin komunikatzea, departamentuaren jarduerak ikastetxeko beste jarduera batzuekin koordinatzeko eta aurreikusitako lan-planaren garapenari nahiz departamentuan ikusten den edozein anomaliari buruz informatzeko.
- g) Egiten diren bilera desberdinetako aktak egotea bermatzea.
- h) Ikastetxeak berak bere AJAn zehazten dituen gainerakoak.

Departamentu-buruak programazioak urriaren 15a baino lehenago eman behar dizkio ikastetxearen zuzendariari, eta ikastetxean bertan geldituko dira, Hezkuntza Ikuskaritzaren eskura. Programazio hauek ikastetxearen Ikasketa-Proiektuan sartuko dira. Halaber, kopia bana departamentukide guztiei emango zaie.

Departamentuko dokumentazio guztiak akta-liburu batean jasota egon behar du; eta hau ikastetxeko lagun bakarreko eta taldeko organoen eta Ikuskaritzaren eskueran egongo da.

Departamentuko bilera bakoitzaren akta egingo da.

Aktak bilerara joan diren guztiek sinatu beharko dituzte eta departamentu-buruak izendatutako irakasleak idatziko ditu.

Amaierako ebaluazioaren ondoren, ikasturtearen hasierako programazioa eta hau zein neurritan bete den aztertuko da, arrazoien analisi bat eginez.

13.1.- ORIENTAZIO-DEPARTAMENTUA

13.1.1.- Orientazio-departamentua sortzea

Helduen Hezkuntzako ikastetxe guztietan eratuko da Orientazio-Departamentua, betiere gutxienez hiru kidekoa denean. Honako irakasle hauek osatuko dute departamentu hori:

- 1.- Hezkuntza-orientabide espezialitateko irakasleek, horietako batek nahitaez departamentuko burutza izan beharko duena.



2.- Pedagogia Terapeutikoko maisu-maistra adituak, horrelakorik egonez gero ikastetxean.

13.1.2.-Orientazio- departamentuko funtzioak

Orientazio-departamentuko egiteko nagusia da irakasleekin batera parte hartzea ikastetxeek hezkuntzan esku hartzeko erabakitze-fofoetan, irakasleak animatzea eta aholkatzea, esaterako, zuzendaritza-taldeetan, pedagogia koordinatzeko batzordeetan, hala dagokionean, didaktika-departamentuetan, irakasle-taldeetan, tutoretzetan, irakasleen artean, eta abar; era berean, ekarpenekin laguntzea proiektuak eratzen, ebaluazio diseinatzen, esku hartzeko irizpideetan, eta, azken batean, ikasleak alderdi pertsonal, sozial, akademiko eta profesionaletan orientatzeko lanetan.

Helburu hori betetzeko, honako hauek bete behar dira gutxienez:

- a) Kide bakoitzari dagozkion egitekoak koordinatzea.
- b) Ikastetxeko Orientabide Plana eta Tutoretza Plana egitean parte hartzea.
- c) Ikastetxeko Orientabide Plan eta Tutoretza Planaren burutzapen eta aplikazioaren jarraipena egitea, departamentuaren urteko memorian jasota.
- d) Orientabide pertsonal, akademiko edo lanekoa koordinatzea beste administrazio batzuekin edo gizarte inguruko erakunde aginpidedunekin (udaleko gizarte ongizatea, esaterako).
- e) Bokaziozko orientabide prozesuak diseinatzea jarduera egokiek, ikasleen arteko berdintasuna sustatuz euren lanbide etorkizuna hautatzerakoan.

Orientazio-departamentua osatzen duten irakasle guztiek egiteko komunak dituzte taldekideak direnez; hala ere, banan-banan berariazko egitekoak egokitu dakizkieke.

13.1.3.-Orientatzailearen funtzioak

Hezkuntza-jarduera osoaren zati bat da orientazioa eta, zentzu horretan, irakasleei dagokie, irakasle-lanaren zati baita. Hori gorabehera, Hezkuntza Orientazioko espezialitateko irakasleei (orientatzaileei) eginkizun bereziak dituzte.

Helduen Hezkuntzako orientatzailearen kasuan, etengabeko ikaskuntzan, funtzio horiek helburu batek zehazten ditu: bizitza osoan zehar behar diren oinarrizko gaitasunak garatzea ikasleetan, hiritartasun aktiboa eta kultura artekoa, aukera-berdintasuna - batez ere gizartean, lanean edo hezkuntzan baztertuta geratzeko arriskua duten taldeena- sustatuz gizarteratzea.

Orientatzaileei jartzen zaizkien funtzioen artean, hauek daude:

- a) Orientazio Plana prestatzea eta, zuzendaritza-taldearekin batera, tutoreei laguntzea eta aholkuak ematea tutoretza-plana prestatzen, eta horren berri jasotzea Urteko Planean eta Departamenduko Urteko Memorian.



- b) Irakasleei aholkatzea eta laguntzea hala ikasleen hasierako ebaluazioan nola ebaluazioaren ondorioz sortutako prestakuntza-ibilbide zehatzak prestatzen. Prestakuntza-eskaintzei eta egin daitezkeen prestakuntza-ibilbideei buruzko informazioa eta aholkuak emanaz.
- c) Aholkuak ematea eta koordinatzea irakasleak tutoretza lanetan, tutoreekin jardunez taldean zein banaka.
- d) Ikastetxeko Pedagogia Koordinatzeko Batzordearekin, batez ere ikasketa-burutzarekin, lankidetzan jardutea, jarduketa-planak eta proposamenak aurkeztuz didaktika-departamentuak eta irakasle-taldeak koordinatzeko.
- e) Bilerak egitea aldian-aldian irakasle taldeekin, aztertu eta parte hartzeko ikasteko prozesuen hobekuntzan jakintza arlo desberdinetan.
- f) Taldeko tutorearekin eta irakasle taldeekin aztertzea ikasleek ikasteko dituzten zailtasunak eta aholkuak ematea hezkuntza indartzeko neurri eta, hala badagokio, curriculum egokitzapen egokienei buruz.
- g) Bere gain hartzea ikastetxeko ikasleen orientabide pertsonal, akademiko eta lanekoa arreta pertsonalaren bidez.
- h) Elkarbizitza-plana prestatzen laguntzea.
- i) Behar izanez gero, bere espezialitateari lotutako gaien inguruko klaseak ematea.
- j) Aldian-aldian maila bakoitzeko irakasleekin bilerak egitea, aholkuak emateko tutoretza-plana garatu eta ebaluatzeko eta batez ere ikasleak orientatzeko zuzendutako jarduerak egiteko.
- k) Ikastetxetik kanpoko hezkuntza- eta gizarte-eragileekin eta komunitate-eragileekin koordinatzen laguntzea, ikasleen jarraipen egokia egiteko, ikasleak integratzeko eta ikasleek ikasketetan arrakasta izan dezaten.

Ikasketaburuak orientatzaileari lagundu egingo dio gradu guztietan lan egiten, hala ikastetxeko tutoreekin nola ikasleak orientatzeko prozesuetan zerikusirik duten profesional guztiekin.

13.1.4.- Hezkuntza-Orientabideko irakasleen ordutegia

Hezkuntza-Orientabideko irakasleek ordutegi jakin bat bete behar dute, ikastetxeko gainerako irakasleek dutenaren modukoa dena, hain zuzen ere. Alegia, asteko 30 orduko ordutegia dute, eta ordu horietatik 23 ikastetxean ohiz egotekoak dira; asteko beste zazpiak, hilabetean zenbatuko direnak, berriz, ikastetxean ohiz kanpo egotekoak dira.

30 ordu horien banaketa Ebazpen honen 10. azpiatalean dago zehaztuta. Banaketa hori berdin-berdina izango da ikastetxeko gainerako irakasleen kasuan ere. Hezkuntza-Orientabideko irakasleen 17 irakastorduen barruan, ordea, ematen dituzten eskola-orduez gain, orientazio-jarduerari propio eskainitako orduak ere zenbatuko dira.



14- TUTORETZAK

Bi "lauhileko" biltzen dituen HHEko talde bakoitzak talde-tutore bana izango du. Irakasleen batzarrari entzun ondoren, ikasketa-buruak erabakiko du zeintzuk izango diren tutoreak; beti ere taldean ordu gehien ematen duen irakaslea tutore izatea hartuko da irizpide nagusizat. Ikasketa-buruak esleipen guztiak arrazoitu beharko ditu eta klaustroaren agirian argi eta garbi adieraziko du zein tutoretza egokitu zaion irakasle bakoitzari.

Ikastetxeek orientazio eta tutore-lanerako plan bat garatuko dute. Izan ere, orientazioko eta tutoretzako edukiak, metodologia, jarduerak eta baliabideak barne-loturik eta irakasle-talde osoak koordinaturik programatu, garatu eta ebaluatu beharko dira planak dituen hiru aldeetan: akademikoan, laborean eta pertsonalean. Plan horrek, besteak beste, ondoko puntu hauek izan beharko ditu kontuan:

- Orientazioa irakasle-talde osoari dagokion lana da. Tutoretza lan horren zati bat da, baina ez da dena.
- Ikastetxeak denbora-tarteak eta lekuak gorde behar ditu tutoretza eraginkortasunez egiteko, baita lan hori koordinatzeko eta programatzeko ere.
- Programazio horrek prozesu orientatzailearen funtsezko hiru momentu izan behar ditu kontuan: helduaren historiatik abiatu; ikastetxean egiten duen prozesua orientatu, baita bere proiektzioa ere; eta, horren ondoren, jarraipena egin.
- Berdinen arteko orientazioa kontuan hartu behar da HHEn.
- Orientazioa eta tutoretza bi lekutan garatzen dira: bata banan-bana, eta bestea taldeka.
- Orientazioko jarduerak moduluetan sartzeari ikastetxeko irakasle-taldean eginkizuna da.

Tutore den irakasleak, zenbait unetan, tutoretza-laneko edukiak eta eginkizunak sartu ahal izango ditu bere tutoretzapekoa den ikastaldeari ematen dizkion irakastorduen barruan. Horrelakorik egiten bada, gehien bat taldeari laguntzeko izan beharko da, eta salbuespenez, banan bana laguntzeko.

Nolanahi ere, irakasle tutoreak 2/2006 Legearen 91 artikuluan jasota dauden funtzioak beteko ditu.

15.- IKASLEAK EBALUATZEA

2008ko urriaren 31ko Aginduak, pertsona helduen Oinarrizko Hezkuntzaren berriazko curriculumak erabaki eta Euskal Autonomiako Erkidegoan finkatzen duenak, 15. artikuluan arautzen du nola ebaluatu helduen oinarrizko prestakuntzako ikasleen ikaskuntza.



HHEko ikastetxeetako ebaluazioa etengabekoa izango da. Ikasleak ezezik irakaskuntza-praktika ere ebaluazioaren gai izango da eta, oro har, ikastetxearen hezkuntza-proiektuan eta ikasketa-proiektuan eta haren gauzapenean, urteko planean, jasotako alderdi guztiak.

Urteko planaren ebaluazioari dagokionez, curriculum-sekuentziazioan sartu behar diren erabakiak edo aldaketak ebatziko dira lauhileko bakoitzaren azken astean egin beharreko irakasleen batzarrean. Erabaki horiek urteko memorian sartuko dira eta hurrengo urteko proiekturako oinarri izango dira.

Ikasleen gaitasunen ebaluazioa banan banakakoa, jarraitua eta globala izango da, eta une hauek dira garrantzitsuenak: hasierako eta azken ebaluazioa.

15.1.- Hasierako ebaluazioa.

Ikasleen hasierako ebaluazioa derrigorrezkoa izango da HHEko ikastetxe prestakuntza-prozesuaren hasieran eta bere asmoa da ikaslearen hasierako egoera ezagutzea, pertsona heldua modulu eta gradurik egokienean kokatzeko; horrela, ebaluazio horrek bere ikaskuntzan aurrerapen handiagoak lortzen eta bere ezaugarri indibidualentzako prestakuntza-ibilbide egokiena aukeratzen lagunduko dio.

Ikuspegi hori abiapuntu izanik, HHEko ikasketak hasi nahi dituzten helduekin izan beharreko harremanak ezin dira mugatu kontzeptu hutsetan oinarritutako ezagupenak neurtzera; alderantziz, bestelako alderdiak ere kontuan hartu behar dira, besteak beste, aurreko esperientziak, interesguneak, etorkizunari eskatzen diona... Erreferentzia horiek ezagutzeko hobe da elkarrizketak egitea. Aurretik ikasketarik egin dutela egiaztatzen dutenekin ere beharrezkoa da hasierako ebaluazio hori egitea, batez ere, aspaldian ikasi eta eguneratu gabekoak badira.

Ikaslearen espedientean idatziko dira hasierako ebaluazioaren ondorioz modulu konbalidatuak, gainditutako irakaskuntza arautuak eta aurkeztutako egiaztagiria eta egingako frogen emaitzak kontuan hartuz.

Lehen Hezkuntza edo Oinarrizko Hezkuntza Orokorren 6. maila gaindituta dutenek automatikoki konbalidatuta izango dituzte II. graduko moduluak. Era berean, beren edukietan irakaskuntza arautuko edozein modalitatetan (LMH, OHO, LH, BBB, IEE edo DBH) gainditu diren arlo edo irakasgaiei dagozkien moduluak konbalidatuko dira. HLPP gaindituta dauzkatenean eta Eskola Graduatuaren titulua dutenek III. graduko azken bi moduluak bakarrik ikasi beharko dituzte, hasierako ebaluazioaren emaitzak kontuan hartuz. Gainera, ikastetxeek modulu bat edo batzuk gainditu direla ezartzeko aukera izango du, modulu horien edukiak, aurkeztutako programa ez-arautuen egiaztagirien arabera edo hasierako ebaluazioaren arabera, ondo gaindituta badaude, euren Ikasketa-Proiektuan ezarritako baldintzetan.

Irakasle-taldeak, ebaluazio honetan oinarrituz, egokien deritzon mailaketak osatuko ditu irailan eta otsailean, eta talde eta modulu egokienetan sartuko ditu helduak. Gerora, ordezkartzako Osabidezko, Lanerako eta Helduen Hezkuntzako unitateari emango dio horren berri, hark onartu eta martxan jar dezan. Oro har, lehenengo zikloan baino ez da onartuko 10 ikasle baino gutxiagoko talderik, lehen graduan malgutasun handiagoz jokatu



nahi delako. Talde guztiak kontuan hartuta, ikasle-kopuruaren batez bestekoa ez da 15 ikasle baino gutxiagokoa izango.

15.2.- Etengabeko ebaluazioa

Ikaskuntza-prozesu osoan, taldearen tutoreak koordinatutako irakasle-ekipoak pertsona helduen etengabeko ebaluazioa egingo du, modu erregularrean joan bada klasera. Etengabeko eta justifikatu gabeko bertaratze-hutsegiteek etengabeko ebaluazioaren eskubidea galtzea ekarriko dute. Matrikulatuen bertaratzea kontrolatuko da hileko erregistroen bidez. Erregistro hauek ikastetxeko idazkaritzan Hezkuntzaren Ikuskaritzaren eskura egongo dira bere ikustaldietan aztertu eta egiaztatzeko.

Ikasle bakoitzaren prozesua baloratuko da eta egoki jotzen diren neurriak hartuko dira bere ikaskuntzan aurrerapen hobea egin dezan. Hartzen diren erabaki guztiak bilera-aktan idatziko dira.

Ebaluazioa etengabea denez gero, prozesu osoan hartutako oharren eta egindako ekintzen emaitza izango da balorazioa, bai eta ikaslearen autoebaluazioarena ere.

15.3. Azken ebaluazioa.

Lauhileko bakoitzaren bukaeran, talde bakoitzeko irakasleek elkartu, ikasle bakoitzak ikasitako moduluak ebaluatu eta kalifikatuko dira, eta kalifikazioa ikaslearen ikasketa-espeditentean erregistratuko da. Kalifikazioarekin batera ikaslearentzako txosten bat egingo dute, eta, bertan, bere ikasketen egoera azalduko da etorkizunerako orientazio egokiarekin batera.

Gradu bakoitza amaitzean, ebaluazio-taldeak neurtuko ditu eremu bakoitzean lortutako gaitasunak. Ebaluazioa negatiboa bada, ikasle batek hurrengo graduakoak egin aurretik, dagozkion moduluak ikasi behar dituela erabaki dezake ebaluazio-taldeak.

Gradu beraren barruan modulu batetik bestera igaro daiteke eremuren bat gainditu gabe, baina goiko modulua ebaluatzeko, gaindituta eduki behar da beheko modulua.

III. gradu azken bileran, ebaluazio-taldeak ikasle bakoitzaren prestakuntza-bide osoa ebaluatu eta kalifikatuko du, eremuka eta moduluka. Eremuka eta moduluka egindako kalifikazioa ikaslearen espeditentean eta ebaluazio-agirietan azalduko da.

Gradu guztien kalifikazioei dagokienez, 2009ko urtarrilaren 14an ikastetxeetara bidalitako jarraibideak bete beharko dira.

16.- IKAS-ERRENDIMENDUARI BURUZKO BALORAZIO OBJETIBOAREN ESKUBIDEA

Ikasle guztiek beren ikas-errendimenduari buruzko balorazio objektiboa jasotzeko duten eskubidea gauzatzeko, ikasleek aurretik honako hauek ezagutu behar ditu: ebaluazio-irizpideak, helburuak eta dagozkion mailako eta maila horretako kurtsoetako



jakintzagaietan ebaluazio positiboa lortzeko eska daitezkeen gutxieneko edukiak. Horrenbestez:

- a) Ikastetxeko curriculum-proiektuan eta departamentu didaktikoetako agirietan aipatutako puntu horiek jaso beharko dira.
- b) Ikastetxeko Antolamendu eta Jarduera-Araudiak bermatu beharko du agiri horiek ikasleek eta legezko ordezkariak eskuratu ahal izango dituztela.

Ikastetxeek ikasturte hasieran jakinaraziko dute ikasgai bakoitza ebaluatzeko erabiliko diren irizpideak.

Ikasleek eta, hala badagokio, beren gurasoek eta legezko ordezkariak ikasleen errendimenduan eraginik izango duten lan, froga eta ariketa guztiak eskuratu ahal izango dituzte, horiek zuzendu eta gero. Horren ondoren, dagozkion alegazioak aurkeztu ahal izango dituzte eta berrikusia izan dadin eskatu. Zuzenketa ez da mugatuko kalifikapen kuantitatibo edo kualitatibo hutsa adieraztera, baizik eta egindako errakuntzak seinlatu behar ditu edo kalifikapena arrazoitu behar du.

Ikastetxeko Antolamendu eta Jarduera-Araudian adieraziko da nola egin behar diren erreklamazioak. Orobat, berrikuspena egiteko epeak eta baldintzak ageriko dira bertan, kontuan izanik curriculum ofiziala, ikastetxeko curriculum-proiektua, programazioak eta publiko egindako kalifikapen-irizpideak irakasleentzat loturapekoak direla.

Erreklamazio-prozedura izan ezean aplikatuko den Agindu honetan xedatutakoa izango da:

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleak: 2008ko uztailaren 7ko Agindua, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuarena, Oinarrizko Hezkuntzan ikasleen ebaluazioa arautzen duena. (2008-07-30eko EHAA).

17.- DOKUMENTAZIOA

Helduen ikastetxeetan bete beharreko gutxieneko dokumentuei dagokienez, arau berririk eman arte, honako hauek mantenduko dira: matrikula-orria, ikasketen espedientea eta ebaluazio-aktak.

17.1.- Matrikula-orria

Ikasturtearen hasieran bete beharko da matrikula-orria; eta matrikula berria denean, ostera, ikasturte bakoitzeko bigarren lauhilekoaren hasieran.

Orri horiek HHEko ikastetxeko idazkaritzan egon beharko dira helduen taldeen arabera sailkatuta. Hezkuntzaren Ikuskaritzak eskatu ahal izango ditu orriok edota hezkuntza-agintariak ikuskatu ahal izango dituzte ikasturtean zehar. Lehenengo lauhilekoaren amaieran taldeko tutoreak orri bakoitzean dagokion atala beteko du; ondoren, promozioa dela eta beste talde batera aldatu edo, bestela, ikaslea lehengo taldean gelditzen bada, irakasle-taldeak agindutako talde berrira igorriko du orri hori. Lauhilekoa bukatu



aurretik ikastaroa uzten badu helduak edo jarraitzeko asmorik ez badu, ikaslearen espedientearen karpetaekin batera gordeko da matrikula-orria.

Bigarren lauhilekoaren amaieran, tutoreak bete beharko ditu matrikula-orriak eta ikaslearen espedientearen karpetan behin betiko gorde.

17.2.- Ikaslearen espedientea

Ikaslearen espedientea helduaren ikasketa-bidea egiaztatzeko oinarritzko agiria da. Ikaslearen ikasketa-gorabehera guztiak jasoko ditu espedienteak. Helduen ikastetxeek bete eta zaindu beharko dituzte espedienteak.

Ikastetxe guztiek ikasleen espedienteen artxiboa izan beharko dute, alfabetoaren arabera antolatuta. Ikaslearen espedientearen karpetan, matrikula-orriez gain, ikastetxeak ikasleari buruz interesgarritzat jotzen dituen agiri guztiak gorde beharko dira.

Helduren bat ikastetxez aldatzen bada, sorburu-ikastetxeak ikaslearen espediente kopia igorriko dio xede-ikastetxeari, azken horrek eskatuta.

17.3.- Ebaluazio-agiriak

Gratu bakoitzeko amaierako ebaluazioaren aktak derrigorrezkoak dira ikastetxe guztietarako, eta ikastetxeetako idazkaritzan ikasturteka eta graduka gorde beharko dira agiriok.

Gratu bakoitzaren amaierako aktak Hezkuntzaren Ikuskaritzak kontrolatuko ditu; honek emaitzak aztertuko ditu eta, III. gradua amaitzean, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Graduatu Titulurako proposamenari oniritzia emango dio.

18.- EGIAZTAGIRIAK ETA TITULUAK

Interesa duenak eskatuta, HHEko ikastetxeak horretarako igorriko zaizkion ereduaren arabera egiaztagiria egingo ditu. Dena delako modulu edo gradua gainditzen ez duten helduek, bestalde, eskubidea dute irakaskuntza horiek egin dituztela frogatzen duen egiaztagiria eman diezaieten.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Graduatu Titulua emateko proposamena urteko bi alditan egingo da, hau da, beren prestakuntza-ibilbidea amaitu duten pertsonen kasuan lauhilekoak amaitzean, Hezkuntza Administrazioak horretarako xedatzen duenaren arabera.

19.- IRAKASLEEN PRESTAKUNTZA

2011-2012 ikasturtean zehar, HHEko ikastetxeetako irakasle guztiek asteko ordubete izango dute irakaslearen prestakuntzarako proiektuak garatu ahal izateko.

Prestakuntza/berrikuntza-proiektuak hurrengo Erabakian xedatutakoaren arabera planteatuko dira: Erabakia, Hezkuntza sailburuordearena; honen bidez, unibertsitateaz



kanpoko ikastetxeentzako diru-zuzkidura edo diru-laguntzetarako deia egiten da, prestakuntza-proiektuak eta hezkuntza berrizatzeko proiektuak gauzatu ditzaten 2011-2012 ikasturtean zehar.

Erabakia honek orientatzailea izango da Hezkuntza Sailari dirulaguntzarik edo proiektuan parte hartzeagatik ziurtapenik eskatzeko asmorik ez duten ikastetxeentzat.

Prestakuntza ekintzetarako asteko ordua zuzendaritza taldeak antolatu behar du, egitasmo aurrikusitako helburuak betetzeko onartutako egitasmo horren arabera. Ekintza horren betetzea kontrolatu egin behar da, irakasle bakoitzaren orduen barruan dauden beste guztiak bezala.

20.- TEKNOLOGIA BERRIAK – IKT

Informazio eta komunikazio azpiegitura mantentzea eta garatzea eta Teknologia berriak (IKT) sustatzea da helburua. Ikastetxeko zuzendariak, helburu hori lortzeko, arlo horretako arduradun bat edo gehiago izendatuko du, ikastetxeko irakasleen gaitasunaren eta orduen aldetiko erabilgarritasunaren arabera. Dagozkien eginkizunak burutzeko, hezkuntza-kudeaketarako ikastetxeari emandako ordu-murrizketaren zati bat esleitu ahal izango die zuzendariak.

Arduradun horiek, ikastetxeko zuzendaritzarekin koordinatuta, eginkizun hauek izango dituzte:

- Ikastetxeetako sistema informatikoen eta multimedia-sistemen jarduera-eremua.
 - Ikastetxeko instalazio eta ekipamendu informatiko eta multimediak ikuskatzea eta behar bezala dabilzala kontrolatzea.
 - Harremanetarako pertsona izango da mantentze-lanetako enpresa, ekipamendu-hornitzaile eta komunikazio-enpresekiko, bai eta Saileko Informazio Sistemen Zerbitzuarekiko ere. Alderdi teknikoan, azken horrek esandakoaren mende jardungo du.
- Jarduera-eremua IKTen dinamizatzaile gisa:
 - IKTen erabilera pedagogikoa sustatzea ikastetxean, bai eta horien bidezko hezkuntza-elkarteko kide guztien parte-hartzea ere.
 - Bitarteko informatikoen eta ikus-entzunezkoen erabilera didaktikoa egiteko urteko lan-programa proposatzea ikastetxeko zuzendaritzari, ikastetxeko urteko planean jasotzeko.
 - Gradu eta eremuen talde-bileretan parte hartzea, bitarteko informatikoen erabilera koordinatzeko eta IKT programa garatzeko programazioak ezartzeko.
 - Irakasleek IKTak erabil ditzaten eta curriculumean sar ditzaten sustatzea. Aholku ematea irakasleei ekipoetan instalatutako hezkuntza-programei buruz, eta jarduera eta maila bakoitzerako egokiena zein den azaltzea.



- IKTen hezkuntza-erabilerako jardunbide egokiak eta arrakasta izan duten esperientziak zabaltzea ikastetxeko irakasleen artean, eta horiei laguntzea IKTak irakasgai eta maila desberdinetan erabiltzen eta horietara egokitzen.

- Ikastetxeak dauzkan baliabide teknologiko finkoen eta mugikorren ordutegiak eta horiek erabiltzeko moduak proposatzea, bai eta erabilera-arauak ezartzeko proposamenak egitea ere, bitarteko informatikoak eta multimedia-sistemak dauden gunetarako.

21.- IKASTETXEETAKO OSASUN ETA SEGURTASUNARI BURUZKO ARAUTEGIA

21.1.- OSASUN-LARRIALDIAK IKASTETXEETAN

Ikastetxeetan osasun-larrialdirik badago, ikastetxeko irakasleek edo irakasle ez diren langileek 112 LARRIALDI-ZERBITZURA deitu beharko dute, eta bertan azalduko diete nola jokatu.

21.2.- OSASUN-ARRETA ESKOLA-ORDUETAN.

Osasun-beharrizan bereziak dituzten ikasleei arreta emateko, Jaurlaritzako Kontseiluak 2005eko azaroaren 29an erabaki zuen jarduera-protokoloa beteko da (ikus Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko web-orria).

21.3.- IBILGAILUAK IKASTETXERA SARTZEKO MODUA

Ikastetxe batera sartzen den edozein ibilgailuk zuzendaritzaren baimena izan beharko du.

Sartzeko baimena baldin badu, ezin izango da ikasleak sartu eta irteten direnean eta jolasaldietan sartu. Gainera, adostutako prozedura bat ezarriko da eta ordutegiak, ibilbideak eta eskola-esparruaren barruan zirkulatzeko arauak zehaztuko dira, baita seinalizatzea ere. Prozedura hori idatziz erregistratuko da eta ikastetxeko arduradunek eta ibilgailuaren gidariak ezagutuko dute.

Aparteko egoera batean ikastetxera sartzen bada, ikastetxeko zuzendaritzak edo eskuordetzen duen pertsonak lagundu beharko diote ibilgailuari.

21.4.- OBRAK

Agian eskola-ordutegian obrak egin beharko dira ikastetxe batean.

Kasu batzuetan, proiektuak segurtasun- eta osasun-azterketa bat sartzen du. Edonola ere, obrak segurtasun-plana sartzen duen edo ez alde batera utzita, ondorengo puntuak derrigorrezkoak izango dira:



1º.- Obren eta irakaskuntza-guneak erabat bereiztea. Honek puntu hauek exijitzen ditu:

- a) Obra-gunea erabat hesitzea.
- b) Sarbide independenteak, bai bakarrik obrakoak diren ibilgailuetarako, bai obrako pertsonalarentzat.
- c) Obrakoa ez den pertsona orori sartzea galarazteko kartela.
- d) Ibilgailuak sartzen diren atetik oinezkoak sartzea galarazteko kartela.

2º.- Plano bat ikastetxearen sarreran eta obra-gunean ikusteko moduan jartzea. Plano horretan bi guneek argi eta garbi bereizita, koloreen arabera, agertu beharko dute, behar diren sarbide eta adierazpenekin. Plano hori ere ikastetxeko zuzendaritzaren eskura jarriko da.

3º.- Obretako ibilgailuak irakaskuntza-gune irekitik sartu behar izanez gero, obrako arduradunak betiere izan beharko du pertsonala, sarrera-irteerak kontrolatzeko eta ikasleen eta ikastetxeko pertsonalaren segurtasuna bermatzeko.

21.5.- SEGURTASUN LAGUNTZAILEA

Dagozkion eginkizunak burutzeko, hezkuntza-kudeaketarako ikastetxeari emandako ordu-murrizketaren zati bat esleitu ahal izango dio zuzendariak. Prebentzio zerbitzuak antolatuko dituen bileretara joan ahal izateko, irakasle honen ordutegian asteartean 8etatik 11etara klaserik ez izatea ahaleginduko da.

Zuzendaritza Taldeari gogorarazten zaio desiragarria litzatekeela laguntzailearen figura ikastetxean egonkortasun maila bat duen langileari esleitzea lanari jarraikortasuna emateko.

21.6.- IRAKASLERIAREN PRESTAKUNTZA PREBENTZIO ARLOAN

Prebentzio arloan Hezkuntza Sailaren 31/1995 Legearen 19. artikuluan xedatutako prestakuntza beharrezkin betetzeko xedez, eta 31/1995 Lege horren 29. artikuluan xedatutako langileek betetzeko, irakasleriaren prestakuntza edo/ta ikastetxerako arduraldi orduetatik gutxienez urtero 2 ordu utziko dira prebentzio arloko prestakuntzarako. Prestakuntza Prebentzio Zerbitzuak ikastetxe bakoitzean emango du beharrezko aurrerapen egokiz zehaztutako egun eta ordutegian.

21.7.- LARRIALDIETAKO SIMULAZIOAK

Ikastetxeetan ebakuazio jarduera gutxienez urtean behin burutzeko betebeharra gogorarazten dugu.



21.8.- TABAKO ETA ALKOHOLDUN EDARIAK

Ikastetxeko Zuzendaria indarreko araudia betetzeaz arduratuko da, ikastetxeetan ikasleen eta irakaskuntza mota alde batera utzita, **tabako eta alkoholdun edarien** espedizioa eta kontsumoa debekaturik baitago eta era berean hala eskatzen duten **ekipo eta instalazioen mantentzeaz**.

21.9.- BOTIKIN ERAMANGARRIA

486/1997 Errege Dekretuak lantokietako gutxieneko segurtasun eta osasun xedapenak ezartzen ditu. Errege Dekretu horrek xedatzen duen arabera, lantoki orok gutxienez **botikin eramangarri bat** izango du, honako hauek edukiko dituena: **desinfektante eta antiseptiko baimenduak, gaza esterilak, kotoi hidrofiloa, benda, esparatrapua, apositu itsasgarriak, guraizeak, pintzak, erabili eta botatzeko eskularruak**.

Lehen sorospenetarako materiala aldiro aztertuko da eta iraungi edota erabili bezain laster ordezkatu da.

21.10.- LAN-ARRISKUEN PREBENTZIOARI BURUZKO INFORMAZIOA

Gogorarazten dizuegu lan-arriskuen prebentzioari buruzko **informazio gehiago** hurrengo helbidean duzuela: <http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net>, Prebentzio-Zerbitzua zatian edo bestela Prebentzio Zerbitzuko teknikariei kontsulta eginez.

<i>LURRALDEA</i>	<i>ESKUALDEA</i>	<i>TELEFONOA</i>
<i>ARABA</i>	<i>1 ESKUALDEA</i>	<i>945 01 84 51</i>
<i>BIZKAIA</i>	<i>1 ESKUALDEA</i>	<i>94 403 11 92</i>
	<i>2 ESKUALDEA</i>	<i>94 403 11 93</i>
	<i>3 ESKUALDEA</i>	<i>94 403 11 93</i>
	<i>4 ESKUALDEA</i>	<i>94 403 11 92</i>
<i>GIPUZKOA</i>	<i>1 ESKUALDEA</i>	<i>943 02 31 74</i>
	<i>2 ESKUALDEA</i>	<i>943 20 84 44 Ext 181</i>

Horretaz gain ikastetxe publikoek langileenganako eraso kasuetan Jarduteko Gida edukiko dute.

Vitoria-Gasteizen, 2011ko uztailaren 19an

JOSÉ CARLOS CRESPO VELASCO

Lanbide Heziketako eta Etengabeko Ikaskuntzako sailburuordea



I. ERANSKINA

ANEXO I



MATRIKULATZEN DEN PERTSONAK BETETZEKO DATU AKADEMIKOAK
DATOS ACADÉMICOS A RELLENAR POR LA PERSONA QUE SE MATRICULA.

1. **AURREKO MATRIKULA/MATRÍCULA ANTERIOR**

- Lehenengo aldiz matrikulatzen zara ikastetxe honetan? BAI/SI EZ/NO
- Se matricula por primera vez en este centro
- **Egindako ikasketak:**
- Estudios realizados
- **Azken aldiz zein ikastetxetan matrikulatu zinen?**/Azken matrikularen urtea
- Centro de estudios donde se matriculó por última vez. /Año última matrícula

2. **TXANDA/TURNO**

- Goizez/Mañana Arratsaldez/Tarde
- Gauez/Noche Txandaka/A turnos

3. **NEURE MAILA PROPOSAMENA/PROPUESTA PERSONAL DE INCORPORACIÓN**

GRADUA/GRADO	ARLOA/ÁMBITO (1)	MODULUA/MÓDULO

AUKERAKO IRAKASGAIK/MATERIAS OPTATIVAS

GRADUA/GRADO	ARLOA/ÁMBITO (1)	MODULUA/MÓDULO

EZ ARAUTUTAKO PRESTAKUNTZA-PROGRAMA/PROGRAMA FORMATIVO NO REGLADO

OHARRAK/OBSERVACIONES:

En.....(e)n,(e)koaren(e)an.
(Año) (Mes) (Día)
Sinadura/Firma:

(1)- Grada/Grado: I, II, III.

- Arloa/Ámbito: Komunikazioa/Comunicación, Gizartea/Social, Zientzifiko-Teknologikoa/Científico-Tecnológico.

- Modulua/Módulo: 1, 2, 3, 4.



IKASTETXEA BETETZEKO DATU AKADEMIKOAK
DATOS ACADÉMICOS A RELLENAR POR EL CENTRO

Goian aipatutako ikaslea hasierako ebaluazioa egin ondoren ikasturteko lauhilekoan kokatua egongo da (1):

El/la alumno/a arriba citado después de la evaluación inicial queda encuadrado/a en el ... cuatrimestre del curso escolar en (1):

GRADUA/GRADO	ARLOA/ÁMBITO (1)	MODULUA/MÓDULO

En.....(e)n,(e)koaren ..(e)an.
(Año) (Mes) (Día)

IDAZKARIA/EL SECRETARIO O SECRETARIA.

Ikasleak bere ikasketak utzi ditu ikasturteko lau hilekoa bukatu gabe.

El/la alumno/a ha abandonado los estudios sin finalizar elcuatrimestre del curso escolar

Ikasleak lehen aipatutako ikasketak GAINDITU DITU/EZ DITU GAINDITU beraz, kokatzea proposatzen da (1):

El/la alumno/a ha cursado las enseñanzas arriba citadas, SUPERÁNDOLAS/NO SUPERÁNDOLAS por lo que se propone la incorporación a (1):

GRADUA/GRADO	ARLOA/ÁMBITO (1)	MODULUA/MÓDULO

En.....(e)n,(e)koaren ..(e)an.
(Año) (Mes) (Día)

TUTOREA/EL/LA TUTOR/A.

- (1)- - Gradua/Grado: I, II, III.
- Arloa/Ámbito: Komunikazioa/Comunicación, Gizartea/Social, Zientzifiko-Teknologikoa/Científico-Tecnológico.
- Modulua/Módulo: 1, 2, 3, 4.



Ikaslea ikasturteko lauhilekoan kokatua egongo da (1):

El/la alumno/a queda encuadrado en el ... cuatrimestre del curso escolar en (1):

GRADUA/GRADO	ARLOA/ÁMBITO (1)	MODULUA/MÓDULO

En.....(e)n,(e)koaren ..(e)an.
(Año) (Mes) (Día)

IDAZKARIA/EL SECRETARIO O SECRETARIA.

**Ikasleak bere ikasketak utzi ditu
..... ikasturteko lau
hilekoa bukatu gabe.**

El/la alumno/a ha abandonado los
estudios sin finalizar elcuatrimestre
del curso escolar

**Ikasleak lehen aipatutako
ikasketak GAINDITU DITU/EZ
DITU GAINDITU beraz, kokatzea
proposatzen da (1):**

El/la alumno/a ha cursado las
enseñanzas arriba citadas,
SUPERÁNDOLAS/NO SUPERÁNDOLAS
por lo que se propone la incorporación a
(1):

GRADUA/GRADO	ARLOA/ÁMBITO (1)	MODULUA/MÓDULO

En.....(e)n,(e)koaren ..(e)an.
(Año) (Mes) (Día)

TUTOREA/EL/LA TUTOR/A.

- (1)- - Gradua/Grado: I, II, III.
- Arloa/Ámbito: Komunikazioa/Comunicación, Gizartea/Social, Zientzifiko-Teknologikoa/Científico-Tecnológico.
- Modulua/Módulo: 1, 2, 3, 4.

OHARRAK/OBSERVACIONES: